

2023KO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORRAK

PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI 2023



11

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

- HABE
- EITB Taldea / Grupo EITB
- Etxepare Euskal Institutua
- Euskadiko Orkestra / Orquesta de Euskadi
- Euskal Herriko Gazte Orkestra / Joven Orquesta de Euskal Herria
- Basque Team

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**2023KO EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO AURREKONTU
OROKORRAK**

**PRESUPUESTOS GENERALES
DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA
DE EUSKADI 2023**



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2023ko urtarrila / 1a, enero 2023

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ekonomia eta Ogasun Saila / Departamento de Economía y Hacienda

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

11-KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	
11-CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA.....	6
Sekzioaren eta programen memoriak	
<i>Memorias de la Sección y de los Programas.....</i>	<i>7</i>
Gastuen egoera-orria	
<i>El Estado de Gastos.....</i>	<i>55</i>
1228 BEM Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa	
<i>MRR Mecanismo de Recuperación y Resiliencia.....</i>	<i>56</i>
4511 Kultura/Hizk. Pol. Egitura eta Laguntza	
<i>Estructura y Apoyo de Cultura y Polít. Ling.....</i>	<i>58</i>
4512 Kirolak	
<i>Deportes.....</i>	<i>61</i>
4513 Kulturaren Sustapena	
<i>Promoción de la Cultura.....</i>	<i>65</i>
4514 Ondare Historiko Artistikoa	
<i>Patrimonio Histórico Artístico.....</i>	<i>73</i>
4515 Gizarte Hedabideak	
<i>Medios de Comunicación Social.....</i>	<i>80</i>
4711 Hizkuntza Politika	
<i>Política Lingüística.....</i>	<i>81</i>
5414 Berrikuntzarako Funtsa	
<i>Fondo de Innovación.....</i>	<i>90</i>
Sarrerren egoera-orria	
<i>El Estado de Ingresos.....</i>	<i>92</i>
4511 Kultura/Hizk. Pol. Egitura eta Laguntza	
<i>Estructura y Apoyo de Cultura y Polít. Ling.....</i>	<i>93</i>
4512 Kirolak	
<i>Deportes.....</i>	<i>94</i>
4513 Kulturaren Sustapena	
<i>Promoción de la Cultura.....</i>	<i>95</i>
4514 Ondare Historiko Artistikoa	
<i>Patrimonio Histórico Artístico.....</i>	<i>96</i>
Gastuen laburpenak	
<i>Resúmenes de Gastos.....</i>	<i>97</i>
Sarrerren laburpenak	
<i>Resúmenes de Ingresos.....</i>	<i>115</i>
ORGANISMO AUTONOMOAK	
ORGANISMOS AUTÓNOMOS.....	117
Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE)	
<i>Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos.....</i>	<i>118</i>
ENTE, SOZIETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK	
ENTES, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS.....	169
Euskal Irrati Telebista Taldea	
<i>Grupo Euskal Irrati Telebista.....</i>	<i>170</i>
Euskal Irrati Telebista	
<i>Euskal Irrati Telebista.....</i>	<i>171</i>

EiTB Media, S.A.U. <i>EiTB Media, S.A.U.</i>	198
EITB Taldea <i>Grupo EITB</i>	231
Etxepare Euskal Institutoa <i>Instituto Vasco Etxepare</i>	236
Euskadiko Orkestra SA <i>Orquesta de Euskadi, S.A.</i>	264
Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa <i>Fundación Joven Orquesta de Euskal Herria</i>	285
BASQUE TEAM Fundazioa <i>Fundación BASQUE TEAM</i>	305



11-KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA
11-CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak arlo hauetan egituratzen du bere jarduera: Kultura, Hizkuntza Politika, Jarduera Fisikoa eta Kirola eta, azkenik, Gizarte Hedabideak.

Arlo horiek guztiek, beren politikak eta jarduera administratiboetan genero ikuspegia eta euskararen normalkuntza txertatzen dute, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Saileko Planaren eta Euskara Planaren bitartez.

Jarraian esparruz esparru azaltzen da zeintzuk izango diren sailaren lan-ildo nagusiak 2023. ekitaldirako.

KULTURA

Kultura Sailburuordetza bi zuzendaritza nagusitan egituratuta dago: Kultura Ondarearen Zuzendaritza eta Kultura Sustatzeko Zuzendaritza. Lehenengoari dagokio kultura-ondarea baloratzea, babestea, balioestea eta hedatzea, eta liburutegiei, artxibategiei eta museoei laguntza ematea. Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren eginkizunak, berriz, honako hauek dira: gure herriko kulturaren eta arteen adierazpideen sorkuntza, ekoizpena eta zabalkundea bultzatzea (musika, arte eszenikoak, ikus-entzunezkoak, arte plastikoak, literatura-argitalpenak...), adierazpide horietako eragileen prestakuntza eta profesionalizazioa sustatzea, eta herritarrentzako kalitatezko kultur-eskaintza bermatzea. Gainera, XII. Legegintzaldian kultura- eta sormen-industriei buruzko politikak Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak kudeatuko ditu.

Kultura Ondarearen ikuspegitik, batez ere garrantzi handiko sei programa sustatuko dira: Euskal Kultura Ondarea balioestea eta hedatzea; Museoen Euskal Sistema garatzea; Dokumentu Ondarea kudeatzea eta Euskadiko Artxiboen Sistema garatzea; Euskadiko Liburutegien Sistema garatzea; Euskal Kulturaren Liburutegi Digitala, euskal kulturaren alderdi guztietara sartzeko atari eta gordailu bakar gisa; eta, azkenik, zuzendaritzari aholkularitza juridikoa ematea eta jabetza intelektuaren arloan Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatutako zerbitzuak kudeatzea.

Kultura sustatzeari dagokionez, sektore kulturei euskarria ematea du helburu, eta, horretarako, politika espezifikoak gauzatzen ditu deialdien bidez, kultur-sorkuntza eta ekoizpena indartzeko, eta sektorea egituratzen lagundu, elkarte edo gobernantzaren eremuko proiektu espezifiko bidez. Jarduera hori guztia eraldatu egingo da, pandemiaren ondorioen ondorioz sektoreak dituen premia egiturazkoenei erantzun ahal izateko.

Helburu horiek lortzeko bidean aurrera egiteko, ko-gobernantza oinarri hartuta, Kultura Sailburuordetzak hurrengo konpromiso nagusiak hartzen ditu:

a) Herri sormen-sektorea laguntzea eta kultura-proiektuen ikusgarritasun eta zeharkakotasun handiagoaren alde lan

El Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco se estructura en las siguientes áreas de actuación: Cultura, Política Lingüística, Actividad Física y Deporte y, por último, Medios de Comunicación Social.

Cada una de estas áreas desarrolla sus políticas y actividad administrativa integrando de forma transversal la perspectiva de género así como la normalización del uso del euskera, a través del Plan Departamental de Igualdad de Mujeres y Hombres y del Plan de Euskera.

A continuación se explica, área por área, cuáles serán las principales líneas de trabajo del Departamento de cara al ejercicio 2023.

CULTURA

La Viceconsejería de Cultura está estructurada en dos direcciones generales: la de Patrimonio Cultural y la de Promoción de la Cultura. A la primera, le corresponde la valoración, protección, puesta en valor y difusión del patrimonio cultural, y el apoyo a las bibliotecas, archivos y museos. Es competencia de la Dirección de Promoción de la Cultura el apoyo a la creación, la producción y la difusión de las diferentes expresiones de la cultura y de las artes en nuestro país (música, artes escénicas, audiovisual, artes plásticas, edición literaria...), estimular la formación y profesionalización de sus agentes y asegurar una oferta cultural de calidad para toda la ciudadanía. Además, durante esta XII. Legislatura las políticas referentes a Industrias Culturales y Creativas se gestionarán desde la Dirección de Promoción de la Cultura.

Desde el punto de vista del Patrimonio Cultural, se impulsarán fundamentalmente seis grandes programas: la puesta en valor y difusión del Patrimonio Cultural Vasco; el desarrollo del Sistema Vasco de Museos; la gestión del Patrimonio Documental y el desarrollo del Sistema de Archivos de Euskadi; el desarrollo del Sistema Vasco de Bibliotecas; la Biblioteca Digital de la Cultura Vasca como repositorio único y portal de acceso a todos los aspectos de la cultura vasca; y, finalmente, el asesoramiento jurídico a la Dirección y la gestión de los servicios transferidos a la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de propiedad intelectual.

En lo que a la Promoción cultural se refiere, su labor se centra en dar soporte a los diferentes sectores culturales, llevando a cabo políticas específicas dirigidas al fortalecimiento de la creación y producción cultural mediante convocatorias, el apoyo a la estructuración del sector a través de las diferentes asociaciones o proyectos específicos en el ámbito de la co-gobernanza. Toda esta actividad se verá transformada para poder dar respuesta a las necesidades más estructurales del sector derivadas de los efectos de la pandemia.

Para avanzar en la consecución de esos objetivos, tomando como pilar la co-gobernanza, la Viceconsejería de Cultura adquiere los siguientes compromisos centrales:

a) Apoyar al sector creativo del País y trabajar por una mayor visibilidad y transversalidad de los proyectos

egitea, talentuaren garapenerako aukerak handituz.

b) Kultura-eskaintza sustatzea, lurralde-garapeneko estrategia gisa eta kultura-sektorearen lehiakortasunean sakontzea, kultura- eta sormen-industriei bultzada irmoa emanez.

c) Kultura Ondarearen eta hura osatzen duten azpiegituren kudeaketa eraginkorra, horretarako ere teknologia berriek eskaintzen diguten potentziala erabiliz, nazioarteko alderdia alde batera utzi gabe.

d) Sektoreren eraldaketa digitala sustatzea, euskal kulturak ingurune digitaletan duen presentzia indartuz eta eragileek kudeaketan, komunikazioan eta produkzioan dituzten gaitasun digitalak sendotuz.

e) Beste erakundeekin auzolana indartzea eta era berean beste sektore politikekin elkarlana indartzea, turismo, hezkuntza eta unibertsitateak, gazteria edo osasuna, beste batzuren artean.

Lehen konpromisoari dagokionez, aurrekontu honetan sorkuntzara eta produkziara bideratutako partida guztiak mantentzen dira, kasu batzuetan handituz edo beste deialdi mota batzuekin osatuz, talentuaren garapen politiketatik eratorriak besteak beste.

Bigarren konpromisoari lotuta, jarraitu egingo dugu ikusentzuleak erakartzeko eta fidelizatzeko proiektuen deialdiekin; jaialdiei eta sariei laguntzen, eta azken horiei laguntza handiagoa emango diegu publizitatearen eta komunikazioaren arloetan; EITB herriko kulturaren arloko proiektuekin eta enpresekin lotzen; kultura hedatzeko sareak hobetzen, eta liburutegi publikoen sarea zabalduko dugu; SAREAREKIKO eta Euskadiko arte eszenikoko sektorearekiko harremana hobetzen.

Kultura- eta Sormen-industriak (KSI) sektorearentzat eta lurraldearentzat garatzeko aukera bat dira. Ildo horretan, BDCC egitasmoa garatzen jarraituko dugu eta gure esfortzuak berrikuntza politiketara bideratuko ditugu. Horretarako, harremanak estutuko ditugu Industriarekin, Zientzia eta Teknologiarekin Euskal Sarearekin eta ekimenean parte hartzen duten Europako sareekin.

Museoak euskal ondarearen eta kultura-sormenaren erakusleho garrantzitsuak dira. Alde horretatik, gure konpromisoak dira haiekiko gure babes mantentzea, haien arteko elkarlana bultzatzea eta Museotik programa garatzea, museoen ondareak leho bakar bat izan dezan.

Euskadiko Kultura Ondarearekin hartutako konpromisoari dagokionez, arreta berezia eskainiko zaio babes juridikoari, eta aitorten bateratuak sustatuko dira. Itsasertzeko Santiago Bidea seinaleztatzeko, babesteko eta dinamizatzeko ekintzekin jarraituko dugu, eta kultura-ondarea katalogatzeko eta ikertzeko lanak sustatuko dira eta inbentarioak eguneratuko dira. Bereziki azpimarratuko da Barakaldoko (Orconera) instalazioetako industria-ondare higigarriaren sozializazioa. Dokumentu-Kudeaketa Integralaren eta Euskadiko Dokumentu Ondarearen Legea onartu denez 2022an, 2023ko erronka indarrean jartzea izango da. Ondare immateriala, industria ondarea eta itsas ondarea babesteko politikak indartu eta hobetuko ditugu.

culturales, incrementando las posibilidades para el desarrollo del talento.

b) Promover la oferta cultural como estrategia de desarrollo territorial y profundizar en aspectos como la competitividad del sector cultural, dando un impulso decidido a las industrias Culturales y Creativas.

c) Gestionar eficientemente el Patrimonio Cultural y las infraestructuras que lo conforman, utilizando también para ello el potencial que nos ofrecen las nuevas tecnologías, sin obviar la vertiente internacional.

d) Promover la transformación digital del sector, reforzando la presencia de la cultura vasca en entornos digitales, y consolidando las competencias digitales de sus agentes en gestión, comunicación y producción.

e) Fortalecer los ámbitos de cooperación con las demás instituciones e impulsar puntos de colaboración con otras políticas sectoriales, como turismo, educación y universidades, juventud, hacienda o salud entre otras.

En relación al primer compromiso, en este presupuesto se mantienen todas las partidas destinadas a la creación y producción, incrementándolas en algunos casos o complementándolas con otro tipo de convocatorias, derivado, fundamentalmente de políticas de desarrollo del talento.

Vinculado al segundo compromiso, continuaremos con la convocatoria de proyectos para la creación y fidelización de públicos, el apoyo a los festivales y premios, dotando a estos últimos de un apoyo publicitario y comunicativo mayor, la vinculación de EITB a las empresas y proyectos culturales del País, y la mejora de las redes de difusión de cultura, ampliando la red de bibliotecas públicas, mejorando la relación con SAREA y las artes escénicas de Euskadi.

Las Industrias Culturales y Creativas (ICCs) representan una oportunidad de desarrollo para el sector y para el Territorio. En este sentido, continuaremos desarrollando el proyecto BDCC y centraremos nuestros esfuerzos en las políticas de innovación. Para ello, estrecharemos lazos con Industria, con la Red Vasca de Ciencia y Tecnología y con redes europeas implicadas en la iniciativa.

Los museos son un importante escaparate del patrimonio vasco y de la creatividad cultural. En este sentido, nuestros compromisos son mantener nuestro apoyo hacia ellos, impulsar la colaboración entre dichas instituciones y desarrollar Museotik, el programa para que el patrimonio museístico tenga una sola ventana.

En lo que al compromiso con el Patrimonio Cultural Vasco se refiere, se prestará especial atención a la protección jurídica, potenciando declaraciones integrales. Se proseguirá con las acciones de señalización, protección y dinamización del Camino de Santiago de la costa, y se actualizarán los inventarios y se impulsarán los trabajos de investigación sobre patrimonio cultural. Especial hincapié se hará en la socialización del patrimonio industrial mueble en las instalaciones de Barakaldo (Orconera). Tras la aprobación el año 2022 de la Ley de Gestión documental integral y Patrimonio Documental de Euskadi, el reto del año 2023 será su puesta en marcha. Se fortalecerán y perfeccionarán las políticas de protección del patrimonio inmaterial y el patrimonio industrial, así como el patrimonio marítimo.

Aurreko legegintzaldian euskal kulturaren espazio digitala sendotzeko hartutako konpromisoekin jarraituko dugu, politika publikoak berrituz. Legealdi honetan, kulturaren berrikuntza eta digitalizazioa bultzatzeko konpromisoa betetzeko, Euskariana indartuko dugu eta beste erakundeetako biltegiekin koordinazio indartuko dugu, digitalizazio politika bateratuak bultzatuz.

Euskarianaren web orria eguneratuko dugu eta edukiak Europeanan integratzea aurreikusten da. Aldi berean, digitalizazio-programak sustatzen eta euskal kultura-ondarea edozein euskarritan osatzen duten baliabideen digitalizazioak egin dituzten eta/edo susta ditzaketan beste erakunde batzuekiko lankidetzan lan egingo da.

Euskadi Digitalaren aldeko konpromisoaren baitan, Euskadiko Liburutegi Digitala garatu eta inplementatuko da. Bertan batuko dira, bai Eusko Jaurlaritzak, baita beste erakunde batzuek ondare arloan egindako lanak. Liburuak ez ezik, Liburutegi Digitalak bestelakoak ere bilduko ditu: argazkiak, marrazkiak eta arte-lanak, artxiboko materialak, soinua eta ikus-entzunezkoak. Era horretan, Zuzendaritza honetako bost zerbitzuek urtetan ondarea identifikatzeko, babesteko eta zabaltzeko egindako ahaleginek bozgorailu berri eta indartsua izango dute.

Gainera, jarraitu egingo dugu irakurketa publiko digitalaren plataforma (eLiburutegia) zabaltzen eta garatzen, bai eta saileko atari digitaletako irisgarritasuna hobetzen ere.

Liburutegi arloan, bestetik, Sarea indartzen jarraituko dugu, liburutegi gehiago integratuz bertan eta Irakurzaletasuna Kanpainari jarraipena emango zaio liburutegien baliabideak hobeto erabili daitezken.

Horri guztiari kultura-eragileekin nahiz kultura-politikaren arloan gurekin batera erantzukizunak partekatzen dituzten gainerako erakundeekin partekatutako gobernantza batetik bakarrik heldu ahal izango zaio. Erakundearteko HAKOBA foroa sakonduko dugu, Kultura Auzolanean planarekin jarraituko dugu, eta Etxepare Institutuak eta Zineuskadik gure kultura-industria nazioartekotzen lagunduko dute.

2023ko ekitaldian Kulturaren Euskal Behatokiaren eginkizuna indartuko da, bere ekintza-eremua ondarearen eta memoria biziaren esparrura ere hedatuko denez.

HIZKUNTZA POLITIKA

Euskararen biziberritzeak herritar eleanitzez osatutako gizarte elebidun gero eta orekatuago baterantz hurbildu behar gaitu. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS), horretan ahalegintzen ari da, adostasun politiko eta sozial zabalena bilatuz, horren eskutik baitatuz gizartearen onespina eta herritarren atxikimendua.

XII. legegintzaldirako 2020-2024 Gobernu Programan jasota daude euskararekiko 3 konpromiso nagusiak: 118. konpromisoa: Euskararen ezagutza areagotzea eta, batez ere, euskararen erabilera azpimarratzea gizarte- eta kultura-eremuetan, eremu ekonomikoetan, digitaletan eta sektore publikoan; 119. konpromisoa: Hizkuntza-

Continuaremos con los compromisos adquiridos en la anterior legislatura de consolidar el espacio digital de la cultura vasca a través de innovación de políticas. Durante esta legislatura, para cumplir con el compromiso de impulsar la innovación y la digitalización de la cultura, reforzaremos Euskariana e incrementaremos la coordinación con los depósitos digitales de otras instituciones, desarrollando políticas de digitalización consensuadas.

Se renovará la página web de Euskariana y se prevee la integración de sus contenidos en Europeana. Al mismo tiempo se trabajará en el fomento de programas de digitalización y en la colaboración con otras instituciones que han realizado y/o puedan fomentar digitalizaciones de los recursos que conforman el patrimonio cultural vasco en cualquiera de sus soportes.

El compromiso con la idea de Euskadi Digital, se plasma sobre todo en el desarrollo e implementación de la Biblioteca Digital de Euskadi. A ella se unirán tanto el Gobierno Vasco como otras instituciones que trabajan en el campo del patrimonio. No solo libros, la Biblioteca Digital incluirá fotografías, dibujos y obras de arte, materiales de archivo, sonoros y audiovisuales. De esta manera, los esfuerzos desarrollados durante años por los cinco servicios de esta Dirección para identificar, proteger y difundir el patrimonio contarán con un altavoz nuevo y poderoso.

Además se continuará ampliando y desarrollando la plataforma de lectura pública digital (eLiburutegia), así como la mejora en la accesibilidad de los diversos portales digitales del Departamento.

En el ámbito bibliotecario, por otro lado, se continuará con el fortalecimiento de la Red, integrando más bibliotecas en la misma y dando continuidad a la Campaña de la Lectura para un mejor uso de los recursos bibliotecarios.

Todo esto sólo se puede abordar desde una gobernanza compartida, tanto con los agentes culturales como con las demás instituciones, con las que compartimos responsabilidades en políticas culturales. Profundizaremos en el foro interinstitucional HAKOBA, continuaremos con Kultura Auzolanean, mientras que el Instituto Etxepare y Zineuskadi servirán para facilitar la internacionalización de nuestras industrias culturales.

Durante el ejercicio 2023 se reforzará el papel del Observatorio Vasco de la Cultura al ampliar su campo de acción también al ámbito del patrimonio y la memoria viva.

POLÍTICA LINGÜÍSTICA

La revitalización del euskera debe acercarnos a una sociedad bilingüe cada vez más equilibrada formada por una ciudadanía plurilingüe. La Viceconsejería de Política Lingüística (VPL) se está esforzando en ello, buscando el más amplio consenso político y social, ya que de su mano viene el reconocimiento social y la adhesión de la ciudadanía.

El Programa de Gobierno 2020-2024 para la XII legislatura recoge los 3 principales compromisos con el euskera: Compromiso 118: Aumentar el conocimiento del euskera y, sobre todo, incidir en su uso en los ámbitos socioculturales, económicos, digitales y en el sector público; compromiso 119: Avanzar hacia el pleno respeto de los derechos

eskubideen erabateko errespeturantz eta normalizatutako hizkuntza-bizikidetzak baterantz aurrera egitea eta 120. konpromisoa: Erakunde arteko lankidetzak indartzea euskararen lurralde guztietan.

Euskararen ezagutza eta erabilera etengabe sustatzea nahitaezko ekimenak dira kalitatezko bizikidetzan aurrera egiteko eta, horrekin batera, euskal herritarren hizkuntza eskubideak zaintzeko. Zeregin horretan ezinbestekoa da erakunde guztien arteko lankidetzak indartzea, baita euskalgintzarekin, entitate pribatuekin nahiz norbanakoekin ere.

Legegintzaldi honetan ere Euskararen Agenda Estrategikoa (2020-2024) dokumentuaren bidez euskarari berariaz dagozkion politikak bideratzen eta zeharkakotasuna bermatzen ahaleginduko da, bai administrazioaren eremu guztietan, baita gizartean ere.

Oinarri nagusi horietan finkatzen ditugu, beraz, 2023ko ekitaldian garatuko ditugun hizkuntza politikaren arloko lehentasunok:

1. Euskararen ezagutza areagotzeko bidean jarraitzea.
2. Euskararen erabilera areagotzeko bidean jarraitzea, bereziki, eremu hauetan:
 - Transmisioa
 - Aisialdia eta kirola
 - Ingurune digitala eta hizkuntza teknologiak
 - Hedabideak
 - EAEko sektore publikoa
 - Eremu sozioekonomiko pribatua
 - Gizarte aktibazioa
3. Herritarren hizkuntza eskubideak babesten jarraitzea.
4. Erakunde arteko lankidetzak indartzen jarraitzea.
5. Zeharkakoak diren ikerketa askotarikoak burutzea (Euskararen Adierazle Sistema, Inkesta Soziolinguistikoa, arlokako ikerketak...).
6. Euskara sustatzeko eta biziberritzeko lagungarri izango diren jardunbideak eratzea eta jarraipena egitea (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP), Euskararen Agenda Estrategikoa...).

Lehenengo lau lehentasunak bat datoz Gobernu Programan onartutako euskararekiko hiru konpromiso nagusiekin. Azkenengo bi lehentasunek zeharka igarotzen dituzte konpromiso guztiak; konpromisoak betetzeko tresna edo bideak dira.

Horrez gain, genero berdintasuna zeharkako politika gisa garatzen jarraituko du HPSk eta hori ageriko izatea nahi da jardunbide guztietan.

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, herri agintariek, beren eskumenen barruan, kirola askatasunez eta norbere borondatez egiteko eskubidea –pertsona guztiek dutena– bermatu behar dute. Izan ere, kirola interes publikoko gizarte-jarduera da, pertsonak bete-betean

lingüísticos y hacia una convivencia lingüística normalizada; y compromiso 120: Intensificar la colaboración interinstitucional con todos los Territorios del euskera.

La promoción continua del conocimiento y el uso del euskera son iniciativas imprescindibles para avanzar en una convivencia de calidad y, con ello, para preservar los derechos lingüísticos de la ciudadanía vasca. En esta tarea es imprescindible reforzar la colaboración entre todas las instituciones, también con el sector del euskera, las entidades privadas y la ciudadanía.

A lo largo de la presente legislatura, mediante la Agenda Estratégica del Euskera (2020-2024), la VPL tratará de orientar las políticas específicas del euskera y garantizar su transversalidad, tanto en todos los ámbitos de la administración como en la sociedad.

En estas bases generales fijamos, por tanto, las prioridades en materia de política lingüística que desarrollaremos en el ejercicio 2023:

1. Seguir avanzando hacia un mayor conocimiento del euskera.
2. Seguir avanzando en el incremento del uso del euskera, especialmente en los siguientes ámbitos:
 - Transmisión
 - Ocio y deporte
 - Entorno digital y tecnologías lingüísticas
 - Medios de comunicación
 - Sector público de la CAE
 - Ámbito socioeconómico privado
 - Activación social
3. Seguir protegiendo los derechos lingüísticos de la ciudadanía.
4. Seguir reforzando la cooperación interinstitucional.
5. Llevar a cabo investigaciones diversas de carácter transversal (Sistema de Indicadores del Euskera, Encuesta Sociolingüística, investigaciones sectoriales...).
6. Elaborar y hacer seguimiento de prácticas que contribuyan a la promoción y revitalización del euskera (Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP), Agenda Estratégica del Euskera...).

Las cuatro primeras prioridades coinciden con los tres principales compromisos con el euskera aprobados en el Programa de Gobierno. Las dos últimas prioridades pasan indirectamente por todos los compromisos; son instrumentos o vías para cumplir los compromisos.

Además, la VPL continuará desarrollando la igualdad de género como una política transversal que se quiere visibilizar en todas las prácticas.

ACTIVIDAD FÍSICA Y DEPORTE

De acuerdo con la Ley 14/1998 del Deporte del País Vasco, los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, garantizarán el derecho fundamental de todas las personas a la práctica deportiva de forma libre y voluntaria en cuanto que constituye una actividad social de

prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizartea ondo izateko lagungarria.

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren zereginak eremu zabala hartzen dute eta hainbat konpromiso estrategikori lotuta daude. Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloa eskumen partekatua izan arren, Eusko Jaurlaritzari dagozkion arloak anitz eta oso ezberdinak dira. 2020-2024 Legealdiari begira, Zuzendaritzak bere lehentasun, helburu eta ekinbideak lau ardatz nagusiren inguruan antolatu ditu. Honako hauek dira.

1. Jarduera fisikoaren eta kirolaren sektorea berpiztu, Euskadiko kirol-sistema ere etorkizuneko erronketarako egokituz.

Covid 19ak aldatu ditu gure gizartearen arlo eta sektore guztiak, eta jarduera fisiko eta kirolarena ez da salbuespena izan. Sektoreko eragile guztiak pairatzen ari dira pandemiaren ondorio sozial eta ekonomikoak. Legealdi honetan zuzendaritzak lan egingo du egoera horri buelta emateko jarduera fisikoaren eta kirolaren sektorea zainduz, berpiztuz eta sendotuz. Era berean, premiazkoa da euskal kirol-sistema etorkizuneko erronketarako egokitzea eta haren antolaketa hobetzea.

2. Euskadi aktiboa sustatu. Euskal herritarren artean jarduera fisikoa eta bizi-ohitura osasuntsuak bultzatuko dira, Euskadi Europako gizarte aktiboenen artean kokatuz.

Mugiment proiektua indartuz, horren baitako deribazio sistema Euskadiko anbulatorio guztietan ezarri.

Mugiment kirol-txartela hedatuz Euskadin kiroldegi txartel sistema duten udalerrir guztietara.

Mundu mailan jarduera fisikoaren inguruko dinamika eta erakundeetan parte hartuz, erreferentzia positiboak gurera ekartzeko helburuz.

Haur eta nerabeen artean jarduera fisikoa indartuz.

3. Euskal kirola berdintasunez. Helburua berdintasun erreala sustatzea da generoaren ikuspuntutik, dibertsitate funtzional bat duten pertsonen aukeren ikuspegitik eta hizkuntza-berdintasunari dagokionez.

Programak indartuz emakumeen presentzia areagotzeko, partehartzea indartzeko eta ikusarazteko kirolaren maila guztietan eta haien erabaki- eta ordezkari-tza-guneetan.

Kirol inklusiboa eta egokitua babesteko neurriak garatuz dibertsitate funtzionala duten pertsonen aukera guztiak erraztuz jarduera fisikoaren eta kirolaren arlo guztietan parte hartu ahal izan dezaten.

Kirol eta jarduera fisikoarekin lotutako guneetan euskararen presentzia eta erabilera indartzeko ekimenak bultzatuz, arlo hau euskararen erabilerarako ingurune egokia bilakatuz.

4. Kirola Euskadiren ikur. Kirola eta kirol-jardunarekin lotutako balioak Euskadiren identifikazio-ezaugarria izango dira, gure herrian bertan eta Euskadi-Basque Country estrategiaren baitan.

interés público que contribuye a la formación y al desarrollo integral de las personas, a la mejora de su calidad de vida y al bienestar individual y social.

Las tareas de la Dirección de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco abarcan un amplio ámbito y están vinculadas a una serie de compromisos estratégicos. A pesar de que la actividad física y deporte es una competencia compartida, las áreas que corresponden al Gobierno Vasco son múltiples y muy diferentes. De cara a la legislatura 2020-2024, la Dirección ha articulado sus prioridades, objetivos y acciones en torno a cuatro grandes ejes. Son los siguientes:

1. Reactivar el sector de la actividad física y el deporte, adecuando el sistema deportivo de Euskadi a los retos de futuro.

La Covid 19 ha alterado todos los ámbitos y sectores de nuestra sociedad, y el de la actividad física y el deporte no ha sido una excepción. Todos los agentes del sector están sufriendo las consecuencias sociales y económicas de la pandemia. En esta legislatura la Dirección trabajará para revertir esta situación preservando, reactivando y consolidando el sector de la actividad física y el deporte. Asimismo, urge adaptar el sistema deportivo vasco para los retos de futuro y mejorar su organización.

2. Promover una Euskadi activa. Se promocionará la actividad física y los hábitos de vida saludables entre la ciudadanía vasca, situando a Euskadi entre las sociedades más activas de Europa.

Reforzando el proyecto Mugiment, implantando su sistema de derivación en todos los ambulatorios de Euskadi.

Extendiendo la kirol txartela Mugiment en Euskadi a todos los municipios que dispongan de un sistema de tarjetas polideportivas.

Participando en dinámicas y organizaciones de actividad física a nivel mundial, con el objetivo de incorporar referencias positivas.

Potenciando la actividad física entre niños, niñas y adolescentes.

3. Deporte vasco en igualdad. El objetivo es promover la igualdad real desde el punto de vista del género, de las oportunidades de las personas con discapacidad y diversidad funcional y de la igualdad lingüística.

Reforzando los programas para incrementar la presencia de las mujeres, potenciar y visibilizar la participación en todos los niveles del deporte y en sus espacios de decisión y representación.

Desarrollando medidas de apoyo al deporte inclusivo y adaptado, facilitando a las personas con diversidad funcional todas las oportunidades para que puedan participar en todos los ámbitos de la actividad física y el deporte.

Impulsando iniciativas para reforzar la presencia y el uso del euskera en los espacios relacionados con el deporte y la actividad física, haciendo de este ámbito un entorno adecuado para el uso del euskera.

4. El deporte como símbolo de Euskadi. El deporte y los valores relacionados con la práctica deportiva serán la seña de identidad de Euskadi, en nuestro propio país y dentro de la estrategia Euskadi-Basque Country.

Basque Team Fundazioaren erreferenzialtasuna goimailako kirolaren arloan sendotuz.

Euskadi erreferentzia bilakatuz dopinaren kontrako borrokan.

Euskal selekzioen babesa indartuz, Euskadi-Basque Country markaren kanpo-proiektzioko elementu gisa.

Euskadira nazioarteko lehen mailako kirol ekitaldiak ekarriz, beste instituzioekin elkarlanean, Frantziako Tourra esaterako.

EiTB

EiTBri dagokienez, aipatu behar da euskal gizartearen zerbitzuan dagoen ente publikoa dela, helburu hauek dituena: euskal gizartea informatzea, herritarrek politikan, gizartean eta kulturaren parte har dezaten bultzatzea, eta euskal kultura eta euskararen normalizazioa sustatzea. Era berean, EiTBren beste helburuetako bat da, herritarrei eskaintzea irrati eta telebista programazio erakargarria eta kalitatezkoa.

Eusko Jaurlaritzak eta EiTBek 2022ko martxoaren 8an sinatu zuten Programa-Kontratu berria, 2022-2025 aldirako. Programa-Kontratu honek ikus-entzunezko komunikazioko zerbitzu publikoaren markoa, eta zerbitzu hori emateko EiTBek hartzen dituen konpromisoak ezartzen ditu. Eraberean, Eusko Jaurlaritzak konpromiso ekonomikoak hartzen ditu, EiTBek zerbitzu publiko hori egoki eskain dezan. 2023ko EiTBren aurrekontuak, Programa-Kontratu horri eta bertako konpromisoei erantzuten die.

Consolidando la referencialidad de la Fundación Basque Team en el ámbito del deporte de alto nivel.

Haciendo de Euskadi un referente en la lucha contra el dopaje.

Reforzando el apoyo de las selecciones vascas como elemento de proyección exterior de la marca Euskadi-Basque Country.

Atrayendo a Euskadi eventos deportivos de primer nivel internacional en colaboración con otras instituciones, como el Tour de Francia.

EiTB

En lo que a EiTB se refiere, cabe mencionar que se trata de un ente público al servicio de la sociedad vasca cuyos objetivos fundamentales son: informar a la sociedad vasca, promover la participación política, social y cultural de la ciudadanía y fomentar la cultura vasca y la normalización del euskera. Asimismo, otro de los objetivos de EiTB es ofrecer a la ciudadanía una programación de radio y televisión atractiva y de calidad.

El Gobierno Vasco y EiTB firmaron el 8 de marzo del 2022 en nuevo Contrato Programa para el periodo 2022-2025, el cual establece el marco y los compromisos para el desempeño del servicio público de comunicación audiovisual que debe prestar el ente público a la sociedad vasca, así como los compromisos económicos que el Gobierno adopta para que ese servicio público pueda prestarse adecuadamente. El presupuesto de EiTB 2023 responde a ese marco del Contrato Programa y a los compromisos en él recogidos.

PROGRAMA
4511 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA.
EGITURA ETA LAGUNTZA

ARDURADUNA
11 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA
KABINETEAREN ETA GIZARTE HEDABIDEEN
ZUZENDARITZA
ZERBITZU ZUZENDARITZA

PROGRAMA
4511 ESTRUCTURA Y APOYO DE CULTURA Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA

RESPONSABLE
11 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
DIRECCIÓN DE GABINETE Y MEDIOS DE
COMUNICACIÓN SOCIAL
DIRECCIÓN DE SERVICIOS

MEMORIA

Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritza sailaren titularrari zuzenean laguntzeko organoa da. Zuzendaritza saileko sailburuordetzak elkarren artean behar bezala koordinatzeaz arduratzen da, sailaren eta beste administrazio batzuen arteko harremanak bideratzen ditu eta sailak Arartekoarekin eta Legebiltzarrarekin duen komunikazioaren arduraduna da. Bestalde, zuzendaritza honek irriati- eta telebista-zerbitzuak eskaintzeko titulu juridikoak emateko prozedurak era administratiboan gauzatzeko eta irriati- eta telebista-operadoreek zerbitzua hitzartutako baldintzetan emango dutela egiaztatzeko eskuduntza ere badu.

Zerbitzu Zuzendaritzari sailaren goi-zuzendaritza betetzea dagokio, hots, sailaren jarduerak planifikatzea, zuzentzea eta koordinatzea. Era berean, saileko zeharkako atala da eta honako helburu hauek ditu: batetik, laguntza ematea organo kudeatzaileei (gainerako zuzendaritzak) arlo ekonomikoan, juridikoan, informatikoan eta langileen atalean; bestetik, euskara- eta berdintasun-planak bultzatzea eta koordinatzea; eta, bukatzeko, saileko estatistika lantzea. Horretarako, zuzendaritza honen egituraketan biltzen dira: lau zerbitzu, euskara eta berdintasunerako unitateak, eta organo estatistikoa.

La Dirección de Gabinete y Medios de Comunicación Social es el órgano de apoyo directo a la persona titular del Departamento. La Dirección vela por la adecuada coordinación entre las Viceconsejerías del Departamento, canaliza las relaciones del Departamento con otras administraciones y es la responsable de la interlocución del Departamento con el Ararteko y con el Parlamento. Por otra parte, corresponde también a esta Dirección la ejecución administrativa de los procedimientos para la concesión de títulos jurídicos de prestación de servicios de radio y televisión y la verificación del cumplimiento de las condiciones esenciales del servicio por parte de los operadores de radio y televisión.

La Dirección de Servicios ejerce la alta dirección del Departamento y es a quien corresponde planificar, dirigir y coordinar las actividades del mismo. Es igualmente la sección transversal del Departamento y sus objetivos son: por un lado, prestar apoyo a los órganos de gestión (resto de Direcciones) en las áreas económica, jurídica, informática y de personal; por otro, impulsar y coordinar los planes de euskera e igualdad; y, finalmente, elaborar la estadística departamental. Para ello, la Dirección se estructura orgánicamente en cuatro servicios, las unidades de euskera e igualdad, y el órgano estadístico.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. SAILAREN TITULARRAREN KANPO HARREMANAK</p> <p>1. Eusko Legebiltzarrarekiko eta Arartekoarekiko sailaren harremanak bideratzea.</p> <p>2. Herritarrek informatzea eta, horretarako dauden hedabideen bidez, haien eskaerei erantzuna ematea.</p>		<p>1. RELACIONES EXTERNAS DE LA PERSONA TITULAR DEL DEPARTAMENTO</p> <p>1. Canalizar las relaciones del Departamento con el Parlamento Vasco y el Ararteko.</p> <p>2. Informar a la ciudadanía y dar respuesta a sus demandas a través de los diferentes canales de comunicación habilitados para tal fin.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>2. IRRATI- ETA TELEBISTA-ZERBITZUAK EMATEKO TITULU JURIDIKOEN EBAZPENA</p> <p>1. Marko juridikoa garatzea.</p> <p>2. FM lizentzia bat esleitzeko lehiaketa ebatzea.</p> <p>3. Titulu juridikoak gauzatzea.</p> <p>4. Euskadiko ikus-entzunezko komunikazio zerbitzua ematen dutenen erregistroa garatzea.</p> <p>5. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren 4/2005 Legea betetzea sustatzea; ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu emaileen eta hedabideen artean (bereizkeria eragiten ez duten edukiak, ordezkariak orekatua, emakumeen aurkako indarkeriaren tratamendua, etab.).</p> <p>3. SAILEKO ORGANO KUDEATZAILEEI LAGUNTZA EMATEA</p> <p>1. Arlo Ekonomikoa: sailaren aurrekontu-aurreproiektua prestatzea (zuzendaritzekin elkarlanean), aurrekontu-exekuzioaren jarraipena egitea, eta gastuei eta sarrerei dagozkien kontabilitate agirien izapidetza zentralizatzea.</p> <p>2. Arlo Juridikoa:</p> <p>2.1. Saileko organoei aholkularitza juridikoa ematea, eta zuzenbidearen arabera beharrezkoak diren txostenak ematea.</p> <p>2.2. Sailaren edo hari atxikitako Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen jardunen aurka jarritako administrazio-errekurtoak, erreklamazioak edo errekerimenduak aztertu, izapidetu eta ebatzeko proposamenak formulatzea.</p> <p>2.3. Kontratuak izapidetzea.</p> <p>2.4. Gobernu Kontseiluari igorri behar zaizkion saileko espedienteak prestatzea.</p> <p>2.5. Saila ukitzen duten auzi judizialei dagozkien errekurtoak, espedienteak eta epaiak gainbegiratzea eta kudeatzea, sailari dagozkion jarduketak guztietan, eta Zerbitzu Juridiko Nagusiarekin lankidetzaren harremanak kudeatzea.</p> <p>3. Arlo Informatikoa: ekipo informatikoak, informazio-sistemak, web-atariak eta prozeduren digitalizazioa kudeatu eta koordinatzea, eta fitxategien segurtasuna eta kalitate-sistemak ere bai.</p>	<p>1</p>	<p>2. RESOLUCIÓN DE LOS TÍTULOS JURÍDICOS DE PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS DE RADIO Y TELEVISIÓN</p> <p>1. Desarrollar el marco jurídico.</p> <p>2. Resolver concurso para el otorgamiento de una licencia de FM.</p> <p>3. Formalizar los títulos jurídicos.</p> <p>4. Desarrollar el Registro de prestadores del servicio de comunicación audiovisual de Euskadi.</p> <p>5. Promover el cumplimiento de la Ley 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres entre los prestadores del servicio de comunicación audiovisual y medios (contenidos no discriminatorios, representación equilibrada, tratamiento de la violencia contra las mujeres, etc.).</p> <p>3. PRESTAR APOYO A LOS ÓRGANOS DE GESTIÓN DEL DEPARTAMENTO</p> <p>1. Área Económica: elabora el anteproyecto del presupuesto del Departamento (de forma coordinada con las diferentes Direcciones), realiza el seguimiento de la ejecución presupuestaria, y centraliza la tramitación de los documentos contables de gasto e ingreso.</p> <p>2. Área Jurídica:</p> <p>2.1. Prestar asesoramiento jurídico a los órganos del Departamento y emitir los informes en derecho requeridos.</p> <p>2.2. Analizar, tramitar y formular propuestas de resolución de los recursos, reclamaciones y requerimiento administrativos interpuestos contra actuaciones del Departamento o de las entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi a él adscritas.</p> <p>2.3 Tramitar contratos.</p> <p>2.4. Preparar los expedientes de Consejo de Gobierno correspondientes al Departamento.</p> <p>2.5. Supervisar y gestionar los recursos, expedientes y sentencias judiciales correspondientes a causas judiciales que afecten al departamento en todas aquellas actuaciones que corresponden al mismo y gestionar las relaciones de colaboración con el Servicio Jurídico Central.</p> <p>3. Área Informática: gestiona y coordina los equipos informáticos, sistemas de información, portales web y la digitalización de los procedimientos, también la seguridad de los ficheros y los sistemas de calidad.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>4. Langileen Atala: Saileko giza baliabideak kudeatzea eta langileak prestatzeko planak ezarri eta koordinatzea.</p> <p>4. EUSKARA-PLANA BULTZATZEA ETA KOORDINATZEA (HIZKUNTZA NORMALKUNTZA)</p> <p>1. Euskararen erabilera areagotzeko neurriak gauzatzea.</p> <p>1. Herri-erakundeekin eta erakunde pribatuekin.</p> <p>2. Barne-harremanetan eta jendaurreko ekitaldietan.</p> <p>3. Herritarrekiko harremanetan.</p> <p>5. SAILEKO POLITIKA GUZTIETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO PROZESUA BULTZATZEA ETA KOORDINATZEA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN SAILEKO BERDINTASUNERAKO PLANAREN BITARTEZ</p> <p>1. Saileko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana eta urteko kudeaketa-planak koordinatzea. Diseinuan, inplementazioan, jarraipenean eta ebaluazioan aholkatzea.</p> <p>1. Legegintzaldiko plana.</p> <p>2. Urteko planak.</p> <p>3. Berdintasunaren arloko lantalde teknikoak.</p> <p>4. Berdintasunaren arloko lantalde politikoak.</p> <p>6. SAILEKO ESTADISTIKA-LANTZEA</p> <p>1. Estatistika eragiketak (EAEko Estatistika Ofizialeko Programan jasotakoak).</p> <p>2. Txosten teknikoak.</p> <p>3. Informazio-eskaerak estatistika institutuei.</p>	<p>10</p> <p>10</p> <p>10</p> <p>1</p> <p>4</p> <p>4</p> <p>4</p> <p>12</p> <p>4</p> <p>6</p>	<p>4. Área de Personal: gestiona los recursos humanos del Departamento y, establece y coordina los planes de formación del personal.</p> <p>4. IMPULSAR Y COORDINAR EL PLAN DE EUSKERA (NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA)</p> <p>1. Implementar medidas destinadas al incremento del uso del euskera.</p> <p>1. En las relaciones con las instituciones públicas y las instituciones privadas.</p> <p>2. En las relaciones internas e intervenciones públicas.</p> <p>3. En las relaciones con la ciudadanía.</p> <p>5. IMPULSAR Y COORDINAR EL PROCESO DE INCORPORACIÓN DE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO EN TODAS LAS POLÍTICAS DEL DEPARTAMENTO A TRAVÉS DEL PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DEPARTAMENTAL</p> <p>1. Coordinar el Plan de Igualdad de mujeres y hombres del Departamento y los planes de gestión anual. Asesorar en su diseño, implementación, seguimiento y evaluación.</p> <p>1. Plan de Legislatura.</p> <p>2. Planes anuales.</p> <p>3. Grupos de trabajo técnicos en materia de igualdad.</p> <p>4. Grupos de trabajo políticos en materia de igualdad.</p> <p>6. ELABORAR LA ESTADÍSTICA DEPARTAMENTAL</p> <p>1. Operaciones estadísticas (incluidas en el Programa de Estadística Oficial de la CAE).</p> <p>2. Informes técnicos.</p> <p>3. Peticiones de información a Institutos de estadística.</p>

PROGRAMA
4512 KIROLAK

ARDURADUNA

11 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA
JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN
ZUZENDARITZA

PROGRAMA
4512 DEPORTES

RESPONSABLE

11 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
DIRECCIÓN DE ACTIVIDAD FÍSICA Y DEPORTE

MEMORIA

Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera, herri agintariek, beren eskumenen barruan, kirola askatasunez eta norbere borondatez egiteko eskubidea –persona guztiek dutena– bermatu behar dute, izan ere, kirola interes publikoko gizarte-jarduera da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanako eta sozietatearen ongizaterako lagungarria.

Jarduera fisikoa eta kirola ezinbestekoak dira gazteen heziketarako. Jarduera fisikoa eta kirola egiten duen orok badaki diziplina eta eguneroko lana zer diren, baita taldean jokatzeko ardura lantzea ere. Gainera, nork bere burua zaintzeko ohiturak ikasten dira kirolaren bitartez.

Jarduera fisikoa eta kirola oso tresna aproposak dira gizarte integratzeko. Horien bitartez, talde edota herri baten parte izateko aukera errazten zaie bertakoak ez diren pertsonen, eta integrazio sarrera bikaina izan daiteke atzeritik gure herrira etorritako hainbat pertsonarentzako.

Jarduera fisikoa eta kirola gure bizi-kalitatearen eta osasunaren oinarria dira, ezinbestekoak gure bizi-kalitatean onurak lortzeko. Egungo sozietatean eta, batez ere, ditugun abantaila teknologikoen badute alde kaltegarri bat: jarduera fisiko eza eta sedentarismoa.

Momentu honetan, heriotza-kausen artean laugarrena dira munduan, eta, beraz, oso kontuan hartu beharrekoak. Jendarte aktiboa, hau da, jarduera fisikoa egiten duen gizartea, sedentarioa ez dena, ezinbestekoa da gure ongizate mailari eusteko. Sozietate alaiagoa, emankorragoa eta osasuntsuagoa ekarriko du, eta, nola ez, jasangarriago egingo ditu gure ongizate-mailak osasun arloan dituen kostuak.

Eusko Jaurlearitzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren zereginak eremu zabala hartzen dute eta hainbat konpromiso estrategikori lotuta daude. Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloa eskumen partekatua izan arren, Eusko Jaurlearitzari dagozkion arloak anitz eta oso ezberdinak dira. 2020-2024 Legealdiari begira, Zuzendaritzak bere lehentasun, helburu eta ekinbideak lau ardatz nagusiren inguruan antolatu ditu. Honako hauek

De acuerdo con la Ley 14/1998 del Deporte del País Vasco, los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, garantizarán el derecho fundamental de todas las personas a la práctica deportiva de forma libre y voluntaria en cuanto que constituye una actividad social de interés público que contribuye a la formación y al desarrollo integral de las personas, a la mejora de su calidad de vida y al bienestar individual y social.

La actividad física y el deporte resultan imprescindibles para la educación de las y los jóvenes. Toda persona que haga actividad física y deporte sabe lo que representan la disciplina y el trabajo diario, así como el cultivo de la responsabilidad de actuar en grupo. Además, por medio del deporte se adquieren hábitos de autocuidado.

La actividad física y el deporte son instrumentos muy adecuados para la integración social. Por medio de ellos se facilita la oportunidad de pertenecer a un grupo o pueblo a las personas foráneas, y pueden proporcionar un excelente acceso a la integración a muchas personas llegadas a nuestro pueblo.

La actividad física y el deporte son la base de nuestra calidad de vida y de nuestra salud, imprescindibles para conseguir beneficios en nuestra calidad de vida. La sociedad actual y especialmente los avances tecnológicos con que cuenta tienen su vertiente perjudicial en la falta de actividad física y el sedentarismo.

En estos momentos constituyen el cuarto factor de mortalidad a nivel mundial, por lo cual deben ser tomados en cuenta. Una sociedad activa, es decir, una sociedad que realiza actividad física, alejada del sedentarismo, resulta imprescindible para mantener nuestro nivel de bienestar. Ello redundará en una sociedad más feliz, productiva y saludable y, por supuesto, hará más sostenibles los costes que conlleva nuestro nivel de bienestar en el área sanitaria.

Las tareas de la Dirección de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco abarcan un amplio ámbito y están vinculadas a una serie de compromisos estratégicos. A pesar de que la actividad física y deporte es una competencia compartida, las áreas que corresponden al Gobierno Vasco son múltiples y muy diferentes. De cara a la legislatura 2020-2024, la Dirección ha articulado sus prioridades, objetivos y acciones en torno a cuatro grandes

dira.

1. Jarduera fisikoaren eta kirolaren sektorea berpiztu, Euskadiko kirol-sistema ere etorkizuneko erronketarako egokituz.

Covid 19ak hankaz gora jarri ditu gure gizartearen arlo eta sektore guztiak, eta jarduera fisiko eta kirolarena ez da salbuespena izan. Sektoreko eragile guztiak pairatzen ari dira pandemiaren ondorio sozial eta ekonomikoak. Legealdi honetan Zuzendaritzak egoera horri buelta emateko lan egingo du jarduera fisikoaren eta kirolaren sektorea zainduz, berpiztu eta sendotuz. Era berean, premiazkoa da euskal kirol-sistema etorkizuneko erronketarako egokitzea eta haren antolaketa hobetzea.

Pandemiak eragindako ondorioei aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzak honako pauso hauek eman ditu:

Zerbitzu tekniko bat abian jartzea, Covid 19aren ondorioz sor daitezken premia, larrialdi eta beharrei erantzun zuzen eta gertukoa emateko.

	00/41	Garbiketa eta lorezaintza. <i>Limpieza y jardinería.</i>	100	
	98/33	EiTB Media, SAU. Zerbitzu integrala. <i>EiTB Media, S.A.U. Servicio integral.</i>	908.624	
3		GASTU FINANTZARIOAK GASTOS FINANCIEROS		160.607
34		Bestelako gastu finantzarioak Otros gastos financieros		160.607
340		Bestelako gastu finantzarioak <i>Otros gastos financieros</i>		160.607
34099		Bestelako gastu finantzarioak <i>Otros gastos financieros</i>	160.607	
4		ERAGIKETA ARRUNTETARAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES PARA OPERACIONES CORRIENTES		162.283.772
40		EAEko sektore publikoarentzat Al sector público de la CAE		162.283.772
403		Sozietate publikoentzat <i>A Sociedades Públicas</i>		162.283.772
	98/30	EiTB Media SAU. <i>EiTB Media, S.A.U.</i>	162.283.772	
6		INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES		100.000
60		Inbertsio ukiezinak Inversiones intangibles		30.000
601		Aplikazio informatikoak <i>Aplicaciones informáticas</i>	30.000	
61		Inbertsio materialak Inversiones materiales		70.000
617		Informazioa prozesatzeko ekipamenduak <i>Equipos para procesos de información</i>	70.000	
8		AKTIBO FINANTZARIOEN GEHIKUNTZA AUMENTO DE ACTIVOS FINANCIEROS		9.300.000
80		EAEko sektore publikoko inbertsio finantzarioak Inversiones financieras en el sector público de la CAE		9.300.000
800		EAEko sektore publikoko entitateetako akzioak, partaidetzak eta ondare-ekarpenak <i>Acciones, participaciones y aportaciones patrimoniales en entidades del sector público de la CAE</i>		9.300.000
80001		Sozietate publikoetako akzioak eta partaidetzak <i>Acciones y participaciones en Sociedades Públicas</i>		9.300.000
	98/35	EiTB Media, SAU. Bazkideen ekarpenak. <i>EiTB Media, S.A.U. Aportaciones de socios.</i>	9.300.000	
		ZUZKIDURAK, GUZTIRA TOTAL DOTACIONES	184.637.744	184.637.744

480 - Euskal Irrati Telebista
Radio Televisión Vasca

AURREKONTUA. BALIABIDEAK
PRESUPUESTO. RECURSOS

EUROAK / EUROS

KAK CAC	PARTIDA PARTIDA	BALIABIDEAK RECURSOS	AURREKONTUA PRESUPUESTO	GUZTIZKOAK TOTALES
3		TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTELAKO SARRERAK TASAS, PRECIOS PÚBLICOS Y OTROS INGRESOS		5.722.744
36		Zuzenbide pribatuko bestelako sarrerak Otros ingresos de derecho privado		5.722.744
360		Zuzenbide pribatuko bestelako sarrerak <i>Otros ingresos de derecho privado</i>		5.722.744
36099		Zuzenbide pribatuko bestelako sarrerak <i>Otros ingresos de derecho privado</i>		5.722.744
	99/30	EITB Media, SAU. Zerbitzu integrala. <i>EITB Media, S.A.U. Servicio integral.</i>	5.722.744	
4		ERAGIKETA ARRUNTETARAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES PARA OPERACIONES CORRIENTES		169.515.000
40		EAEko sektore publikotik Del sector público de la CAE		169.504.500
400		Administrazio Orokorretik <i>De la Administración General</i>		169.029.000
	99/00	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. Komunikabide sozialak. <i>Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Medios de Comunicación Social.</i>	167.007.000	
	99/01	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. Euskararen sustapena. <i>Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Promoción del Euskera.</i>	350.000	
	99/02	Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio Orokorra. Kulturaren sustapena. <i>Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Promoción de la cultura.</i>	175.000	
	99/03	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. Segurtasuna. <i>Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Seguridad.</i>	847.000	
	99/04	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena. <i>Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Desarrollo económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente.</i>	150.000	
	99/05	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. Turismo, Merkataritza eta Kontsumoa. <i>Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Turismo, Comercio y Consumo.</i>	200.000	
	99/06	EAEko Administrazio Orokorra. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak. <i>Administración General de la CAE. Igualdad, Justicia y Políticas Sociales.</i>	50.000	
	99/07	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. Lana eta Enplegua. <i>Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Trabajo y Empleo.</i>	100.000	
	99/08	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. Hezkuntza. <i>Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Educación.</i>	150.000	
401		Organismo autonomoetatik <i>De Organismos Autónomos</i>		325.500
	99/10	HABE - Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntze Erakundea. <i>HABE - Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos.</i>	60.000	
	99/11	EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea. <i>EMAKUNDE - Instituto Vasco de la Mujer.</i>	205.000	
	99/12	GOGORA - Memoria, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Institutua. <i>GOGORA - Instituto de la Memoria, Convivencia y DDHH.</i>	60.500	
402		Zuzenbide pribatuko ente publikoetatik <i>De Entes Públicos de derecho privado</i>		150.000
	99/13	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia. <i>Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.</i>	150.000	
43		Estatuko sektore publikoko entitateetatik De Entidades del sector público del Estado		10.500
431		Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileetatik <i>De Entidades Gestoras de la Seguridad Social</i>		10.500
	23/01	Gizarte-aseguruen ordainketak. <i>Pago de seguros sociales.</i>	10.500	
9		PASIBO FINANTZARIOEN GEHIKUNTZA AUMENTO DE PASIVOS FINANCIEROS		9.400.000
94		Ondare garbiaren gehikuntza, EAEko sektore publikoko entitateen ekarpenengatik Aumento del patrimonio neto por aportaciones de entidades del sector público de la CAE		9.400.000
940		Gizarte-funtsa <i>Fondo Social</i>		9.400.000
	99/00	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. Komunikabide sozialak. <i>Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Medios de Comunicación Social.</i>	9.400.000	
		BALIABIDEAK, GUZTIRA TOTAL RECURSOS	184.637.744	184.637.744



1. ERAKUNDEAREN JARDUERA NAGUSIAK

EUSKAL IRRATI TELEBISTA erakunde publikoa Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen bidez sortu zen, Autonomia Estatutuan xedatutako eskumena gauzatuz. EITB funtsezko zerbitzu publiko gisa eta euskal herritarren informazio eta partaidetza politikorako tresna nagusi gisa sortu zen, bai eta gure hezkuntza-sistemeekin eta euskal kultura sustatu eta hedatzeko sistemeekin elkarlanean aritzeko ezinbesteko baliabide gisa ere, euskararen sustapena eta garapena gogoan izanda; hori guztia, autonomia-erkidego honetako euskal herritarren eskubideak eta askatasunak egokiro zabaltzeko oinarri eta funts gisa.

Autonomia-erkidegoaren titulartasunekoak diren gizarte-komunikabideen jarduera honako helburu hauetan oinarritu behar da:

- Informazioaren objektibotasuna, egiazkotasuna eta inpartzialtasuna.
- Informazio eta iritzi kontzeptuak desberdintzea eta banantzea, azken horrek nor adierazi duen identifikatzea eskatzen baitu. Tratamendu berdina (desberdindua eta banandua) eskatuko du publizitate komertzialak.
- Berdintasun-printzipioa, pluralismo politikoa, erlijiosoa, soziala, kulturala eta hizkuntzakoa errespetatzea.
- Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan onartutako bizikidetasunaren herritar-balioen defentsa eta sustapena, interes orokorraren alde egiteko.
- Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak onartzen duen eskubide oro errespetatzea.
- Pertsonen ohorea, ospea eta, bereziki, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea errespetatzea.
- Gazteak eta haurrak babestu eta sustatzea.
- Euskal kultura eta hizkuntza sustatzea, oinarritzko programazio-printzipioak euskara erabiltze aldera ezarri, autonomia-erkidegoan euskarazko irrati- eta telebista-emisioen eskaintza globalean oreka egon behar dela kontuan izanda.
- Haxe da sozietatearen xedea: uhinen edo kable zuzenduen bidez, hurbiletik edo berehala jendearentzat oro har, irudiak eta soinuak ekoitzi eta transmititzea,

1. ACTIVIDADES GENERALES DE LA ENTIDAD

El Ente Público EUSKAL IRRATI TELEBISTA fue creado mediante la Ley 5/1982 de 20 de mayo del Parlamento Vasco, en el ejercicio de la competencia contemplada en el Estatuto de Autonomía. Se crea EITB como servicio público esencial y como instrumento capital para la información y participación política de la ciudadanía vasca, así como medio fundamental de cooperación con nuestro sistema educativo y de fomento y difusión de la cultura vasca, teniendo muy presente el fomento y desarrollo del euskera, todo ello como base y fundamento para el adecuado desenvolvimiento de los derechos y libertades de los ciudadanos y ciudadanas vasca de esta Comunidad Autónoma.

La actividad de los medios de comunicación social cuya titularidad corresponde a la Comunidad Autónoma, se debe sustentar en los siguientes objetivos:

- La objetividad, veracidad e imparcialidad de las informaciones.
- La distinción y separación entre información y opinión, requiriendo esta última la identificación de quienes la manifiestan. Igual tratamiento diferenciado y separado requerirá la publicidad comercial.
- El respeto al principio de igualdad, al pluralismo político, religioso, social, cultural y lingüístico.
- La defensa y la promoción de los valores cívicos de la convivencia reconocidos en la Constitución y en el Estatuto de Autonomía, en defensa del interés general.
- El respeto a cuantos derechos reconoce la Constitución y el Estatuto de Autonomía.
- El respeto al honor, la fama de las personas y, en particular, al derecho a la intimidad y la propia imagen.
- La protección y promoción de la juventud y de la infancia.
- La promoción de la Cultura y lengua vasca, estableciendo a efectos de la utilización del euskera, los principios básicos de programación, teniendo presente la necesidad de equilibrio a nivel de oferta global de emisiones radiotelevisivas en lengua vasca en la Comunidad Autónoma.
- Constituye el objeto social la producción y transmisión de imágenes y sonidos simultáneamente a través de ondas o mediante cables destinados, mediata

informazioa emateko asmoz edo kulturari, arteari, olgetari, merkataritzari zein publizitateari lotutako helburuekin, bai eta bere telebista, irrati eta Interneteko euskarrien bidez aurrekoen eranskinak edo osagarriak diren jarduerak gauzatzea ere.

EITB zuzenbide pribatuko entitate publiko moduan konfiguratuta dago eta, Zuzendaritza nagusiaren mende dago zuzenki. Haren xedea da taldearen estrategia sustatzea eta koordinatzea, prozesu korporatiboak kudeatzea eta EITB Mediaren bitartez zerbitzu publikoko mandatua garatzea.

Gerentziako eta Estrategia eta Komunikazioko taldearen barruan daude honako hauekin lotutako prozesuez arduratzen diren taldearen alorrak: merkataritza politika, politika finantzarioa eta aurrekontuetakoa, informazio sistemak, giza baliabideak, zerbitzu juridikoak, zerbitzu orokorrak, kalitatea, ikusleriaren eta entzuleriaren ikerketa eta autosustapena.

Funts soziala honela banatuta dago.

o inmediatamente al público en general, con fines informativos, culturales, artísticos, recreativos, comerciales, publicitarios, así como cuantas actividades sean anejas o complementarias de las anteriores a través de sus soportes de televisión, radio e Internet.

EITB está configurada como ente público de derecho privado que, bajo la dependencia directa de la Dirección General, tiene la misión de impulsar y coordinar la estrategia del Grupo, la gestión de los procesos de carácter corporativo y desarrollar a través de EITB Media la encomienda de Servicio Público.

El equipo de Gerencia y Estrategia y Comunicación, engloba las áreas responsables de los procesos del Grupo relacionados con la política comercial, la financiera y presupuestaria, los sistemas de información, los recursos humanos, los servicios jurídicos, los servicios generales, la calidad, la investigación de audiencias y la autopromoción.

El fondo social se distribuye de la forma siguiente:

PARTAIDETZA PARTICIPACIÓN	%
EAEko Administrazioa Administración de la CAE	100
GUZTIRA TOTAL	100

2. 2022AN BURUTUTAKO EGITE NAGUSIAK

2. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2022

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. ERRENTAGARRITASUN SOZIALAREN ETA KUDEAKETAREN EFIZIENTZIAREN HELBURUEN ARTEKO OREKA</p> <p>EITBk 2022 ekitaldian zorrotz-zorrotz kontrolatu du aurrekontua, diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu-orekaren helburua betetzeko, bereziki finkatutako kontuetan.</p> <p>Zuzendaritza Nagusiak mantendu egin ditu Programa Kontratuan EITBko agente koadro gisa hartutako konpromisoen adierazleak mantendu egin dituzte; bertan egiten da egikaritzearen jarraipena, lau hilean behin, Administrazio Kontseiluaren saioetan.</p> <p>Horrez gain, kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi nabarmenduko ditugu, ekitaldian garrantzia izan dutenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Enpresa-efizientzia Zuzendaritzaren eta aurrekontuaren kudeaketarako barne-gidalerroei jarraituz, legealdi honetan egindako jarduketek beren isla dute enpresa-efizientzia eta -jasagarritasunerako neurrietan. Produktibotasuna hobetu egin da eta ahalik eta baliabide gehien 		<p>1. EQUILIBRIO ENTRE EL OBJETIVO DE RENTABILIDAD SOCIAL Y EL DE EFICIENCIA EN LA GESTIÓN</p> <p>EITB ha desarrollado durante el ejercicio 2022 un riguroso control del presupuesto para cumplir con el objetivo del equilibrio presupuestario de ingresos y gastos, particularmente en las cuentas consolidadas.</p> <p>La Dirección General mantiene los indicadores de los compromisos adquiridos en el Contrato Programa como cuadro de mando de EITB, sobre el cual se realiza seguimiento de ejecución, con carácter cuatrimestral, en las sesiones del Consejo de Administración.</p> <p>Adicionalmente, destacaremos diversos asuntos de gestión que han tenido relevancia en el desarrollo del ejercicio:</p> <ul style="list-style-type: none"> Eficiencia empresarial. Conforme a las pautas internas de gestión directiva y presupuestaria las actuaciones adoptadas de la presente legislatura se plasman en medidas de eficiencia y sostenibilidad empresarial, mejorando la productividad y dirigiendo los máximos recursos posibles a los gastos directos

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>bideratu dira programetako edukietako gastu zuzenetara. Ikuspegi hori EITB taldearen jasagarritasunerako funtsezko eta oinarritzko printzipiotzat jo da. 2022an, aurreko ekitaldietan bezala, gastua diru-sarreretara egokitzeko kostuen partida guztiak berrikusteko politikarekin jarraitu da.</p> <p>1. Soldata-masa, Gizarte Segurantzarik gabe (milaka eurotan), taldeak 2022rako metatutako datua (itxiera-proiektzioa).</p> <p>2. EITB taldearen plantilla.</p> <p>3. EITB taldean 2022 ekitaldirako publizitate-salmenten zifra (milaka eurotan, itxiera-proiektzioa).</p> <p>Espainiako publizitatearen merkatuan publizitateko diru-sarrerak gehitu egin dira. Infoadexen arabera (2022ko lehenengo sei hilekoko datuak), publizitate inbertsioa % 4,2 gehitu zen 2022ko urtarilaren eta ekainaren artean aurreko ekitaldiko aldi berarekin alderatuta.</p> <p>Infoadexen arabera, hauxe da aldi horretako joera sektoreetan banatuta:</p> <p>Telebistan gehikuntza orokorra gertatu da eta publizitate inbertsioa 830,2 milioi euro gehitu da, hau da, 2021eko aldi berean baino % 5 gutxiago (873,7 milioi euro inbertitu ziren 2021ean). Kateen arabera, Mediaset (-% 8), Atresmedia (-% 2,9), estatuko beste telebista ireki batzuk (+% 7,3), autonomia erkidegoetako telebistak (+% 13,3), ordaintzeko kanalak (-% 21,5) eta tokiko telebistak (-% 0,6).</p> <p>Irratiak inbertsioetako hirugarren postua du 208,3 milioi euroekin eta aurreko urteko aldi bereko 190,1 milioi euroekin alderatuta, % 9,6ko gehikuntza izan du.</p> <p>Euskarri digitalak publizitate inbertsioko bolumenean lehenengo postua du eta % 7,3ko gehikuntza izan du, beste modu batera esanda, urteko lehenengo sei hilabeteetan 1.205,5 milioi euro jaso ditu.</p> <p>EITB-REN HEDABIDEEN FAKTURAZIOA:</p> <p>Aurreikusi da EITB Mediaren hedabideek publizitateagatik jasotako fakturazioa handiago izango dela aurreko ekitaldian, baino.</p> <p>EITB Mediaren telebista alorrari dagokionez, memoria hau egin zen egunean, abuztua itxi ondoren, aurreko ekitaldiarekiko ezberdintasuna % +17,3koa da.</p> <p>Irratiari dagokionez, aldiz, abuztuan aurreko ekitaldiarekiko ezberdintasuna % 15,6koa da.</p> <p>Interneten, abuztuan aurreko ekitaldiarekiko ezberdintasuna % 13 izan da.</p> <p>4. Ekitaldiaren aurrekontu-oreka</p>	<p>52.753</p> <p>1.090</p> <p>12.638</p> <p>DÉFICIT 0</p>	<p>para contenidos de programas. Tal enfoque se ha considerado como principio fundamental y básico para la sostenibilidad del Grupo EITB. A lo largo de 2022, igual que en los ejercicios precedentes, se ha continuado con la política de revisiones de todas las partidas de costes a fin de ajustar el gasto a los ingresos.</p> <p>1. Masa salarial, sin SS (miles euros), dato acumulado del Grupo para el ejercicio 2022 (proyección de cierre).</p> <p>2. Plantilla del Grupo EITB.</p> <p>3. Cifra de ventas de publicidad del Grupo EITB para ejercicio 2022 (miles euros, proyección de cierre).</p> <p>En el mercado de la publicidad de España se constata un aumento de ingresos de publicidad. Según Infoadex (datos del primer semestre del 2022), la inversión publicitaria en general, sube un 4,2% entre enero y junio de 2022 respecto al mismo periodo del año anterior.</p> <p>Según la fuente Infoadex este es el comportamiento sectorial en el citado periodo ha sido el siguiente:</p> <p>Descenso en Televisión que aglutina una inversión publicitaria de 830,2 millones de euros, con un 5% menos que los 873,7 millones de euros del mismo periodo de 2021. A nivel de las diferentes cadenas Mediaset (-8%), Atresmedia (-2,9%), otras televisiones estatales en abierto (+7,3%), televisiones autonómicas (+13,3%), canales de pago (-21,5%) y TV locales (-0,6%).</p> <p>La Radio, ocupa el tercer lugar por inversión y se sitúa en 208,3 millones, con un incremento del 9,6% respecto a los 190,1 millones del mismo período del ejercicio anterior.</p> <p>El soporte Digital, ocupa la primera posición por volumen de inversión publicitaria y ha experimentado un incremento del 7,3%, obteniendo 1.205,5 millones de euros en los primeros seis meses del año.</p> <p>FACTURACIÓN DE LOS MEDIOS DE EITB:</p> <p>Se prevé la facturación acumulada por publicidad en a nivel global de los medios de EITB Media, sea superior a la del ejercicio precedente.</p> <p>En el caso de la división de televisión de EITB Media, a fecha de elaboración de la presente Memoria, con cierre de agosto realizado, la variación respecto al ejercicio anterior es del +17,3%.</p> <p>En el caso de la división de Radio en agosto la variación respecto al ejercicio anterior es del 15,6%.</p> <p>En el caso de Internet, en agosto la variación respecto al ejercicio anterior es del 13%.</p> <p>4. Equilibrio presupuestario del ejercicio</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Aurreikusi da 2022 ekitaldian aurrekontu-oreka lortuko dela, EITB taldean finkatutako kontuetan diru-sarrerak eta gastuak orekatuta egongo direla.</p> <p>2. PROIEKTUEN GARAPENA</p> <p>2022-2025 PROGRAMA-KONTRATUA. EITBk eta Eusko Jaurlaritzak 2022-2025 Programa-Kontratu berria formalizatu dute, ezarritako printzipioen arabera. Era berean, aurreko programa-kontratuaren ixteari ekin zaio. 2022an zehar, aurten garatzeari dagozkion betetze-txostenak egiten ari dira.</p> <p>2021. urtearen itxierako txosten exekutiboan jasotzen denez, EITBk kalitatezko zerbitzu publiko bat eskaintzeko konpromisoa bete du, audientzia nagusia duen komunikazio talde publiko bati dagokiona, eta herritar guztientzat euskarazko eta gaztelaniazko multimedia edukien eskaintza bat duena.</p> <p>Halaber, EITBk lidergo eta erreferentzialtasun posizio argiari eutsi dio informazio-zerbitzuetan, eta emaitza nabarmenak lortu ditu pluraltasunaren, sinesgarritasunaren eta profesionaltasunaren ezaugarrietan, informazio-eskaintzari dagokionez.</p> <p>Programa Kontratuaren Jarraipen Batzordeak exekuzio-txostena bermatu zuen, eta programa-kontratuaren zorrotz kudeatu zela onartu zuen, adierazle kualitatiboek eta kuantitatiboek adierazten zuten bezala, eta ezohiko emaitzak % 90 ingurukoak izan ziren. 2021eko konpromiso guztietan % 90etik gorako betetze-maila dugu, % 60-70ekoa den 10. konpromisoan izan ezik. Badirudi baietz, betetze-maila % 90etik gorakoa dela.</p> <p>2022-2025 Programa Kontratu berria 2022ko martxoaren 8an sinatu zen.</p> <p>Memoria hau egiteko unean, 2022ko irailean, EITBk ekitaldi-itxieran programa-kontratuaren ezarritako eskakizunak beteko dituela uste da.</p> <p>Programa Kontratuko konpromisoen adierazleak betetze-ehunekoa (urtarrila-abuztua behin-behineko egikaritzea %80). Urteko aurreikuspena betetzeko da, eta ekitaldiaren azken lauhilekoan edukien ekoizpena biziagoa izango dela.</p> <p>EITB 2030 ESTRATEGIA: Ikus-entzunezko egungo ekosistemari buruzko hausnarketa egin, nazioarteko panorama aztertu eta EITBk euskal ikus-entzunezko talde publiko gisa komunikabideekin duen xede eguneratua definitu ondoren, 12 lehentasun zehaztu dira aurrera egiteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. EITB: erreferente eta konpromiso soziala. • 2. Etorkizuneko telebista. • 3. Etorkizuneko irratia. 	<p>93%</p>	<p>Está previsto lograr en el ejercicio de 2022 un resultado de equilibrio presupuestario, de equilibrio de ingresos y gastos en las cuentas consolidadas del Grupo EITB.</p> <p>2. DESARROLLO DE PROYECTOS</p> <p>CONTRATO PROGRAMA 2022-2025: EITB y el Gobierno Vasco han formalizado un nuevo Contrato Programa 2022-2025 conforme a los principios establecidos. Así mismo se procede al cierre del contrato programa anterior. A lo largo del 2022 se están realizando los Informes de Ejecución correspondiente a su desarrollo este año.</p> <p>En el informe ejecutivo del cierre del año 2021, se recoge que EITB ha cumplido el compromiso de ofrecer un servicio público de calidad, propio de un grupo de comunicación público de audiencia mayoritaria, con una oferta de contenidos multimedia, en euskera y castellano, para el conjunto de la población.</p> <p>También que EITB ha mantenido en los servicios informativos una clara posición de liderazgo y referencialidad, con destacados resultados en los atributos de pluralidad, credibilidad y profesionalidad con respecto a su oferta informativa.</p> <p>La Comisión de seguimiento del Contrato Programa avaló el informe de ejecución y asumió que el Contrato Programa había sido gestionado con rigor tal y como los indicadores cualitativos y cuantitativos reflejaban, con resultados extraordinarios alrededor del 90% de cumplimiento. En todos los compromisos del año 2021 tenemos un grado de cumplimiento superior al 90% menos en el compromiso 10 que esta entre en 60-70%, ósea que se diría que sí, que el grado de cumplimiento es más del 90%.</p> <p>El nuevo Contrato Programa 2022-2025 se firmó el día 8 de marzo del 2022.</p> <p>En el momento de la elaboración de la presente Memoria, septiembre de 2022, se estima que EITB cumplirá con los requerimientos establecidos en el contrato programa, al cierre del ejercicio.</p> <p>Porcentaje de previsión de cumplimiento de indicadores de compromisos del Contrato Programa (ejecución provisional enero-agosto 80%). La previsión anual es de cumplimiento, con un último cuatrimestre del ejercicio más intenso en producción de contenidos.</p> <p>EITB 2030 ESTRATEGIA: Una vez elaborada una reflexión del actual ecosistema audiovisual, analizado el panorama internacional y definida la misión actualizada de EITB como grupo audiovisual público vasco con medios de comunicación, se han definido 12 prioridades para avanzar:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. EITB: referente y compromiso social. • 2. La televisión del futuro. • 3. La radio del futuro.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> • 4. Zerbitzu eta eduki digitalak. • 5. Lidergoa informazioan. • 6. Kiroleko erreferenteak. • 7. Aliantza ikus-entzunezko euskal ekosistemarekin. • 8. Kudeaketa teknologiko berria. • 9. Etorkizunean inbertitzea. • 10. Zeharkako merkataritza-ekintza. • 11. Enpresa egitea. • 12. Gobernantza publikoa eta aliantzak sortzea. <p>Lehentasun horietako bakoitzak ekintza-ildo desberdinak ditu, baita horiei lotutako proiektuak ere.</p> <p>2022an zehar, jarraipen-azterketa bat egin zen, garapena analizatzeko, eta prozesu hori interesgarria da ere, hala badagokio, eguneratzeko.</p> <p>COMPLIANCE: 2022ko ekitaldian, Arauak Betetzeko Planaren (Compliance penal) jardura maneiatu da, eta Europako funtsen laburpenetara egokitu da.</p> <p>GOBERNANTZA ETA ESK: EITB taldeak bete egiten ditu 2009an euskal sektore publikorako Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ezarritako gobernantza eta erantzukizun sozialeko printzipioak aplikatzen ditu.</p> <p>EITBk 2007tik garatu ditu politika horiek bere ohiko kudeaketan, eta erantzukizun sozialeko memoriak argitaratuz.</p> <p>2018 ekitalditik aurrera, memoria-eredua aldatu zen, eta "Informazio ez-finantzarioaren egoera txosten" bihurtu zen, 11/2018 Legeak, alor hori arautzen duenak, xedatzen duenari jarraituz.</p> <p>2022 ekitaldian dagokion memoria egin da, eta gardentasun-atarian argitaratu da: https://www.eitb.eus/eu/eitb-taldea/gardentasuna/.</p> <p>Erantzukizun sozialaren alorrean, gobernantzaren gardentasuna sustatzeaz gain, bere borondatez garatu ditu gizartera hurbiltzeko ekimenak, Euskadiren irudia munduan sustatzekoak, komunikatzaile euskaldunen sustapena babestekoak; baita ingurumen politikak eta plantillarekin politika sozialak, eta bezeroei eta hornitzaileei eragiten dieten enpresa-jasangarritasunerako politikak ere.</p> <p>LANEKO OSASUNAREN AUDITORIA: AENORek sozietate guztietan indarrean dagoen laneko</p>		<ul style="list-style-type: none"> • 4. Servicios y contenidos digitales. • 5. Liderazgo en información. • 6. Referentes en deporte. • 7. Alianza con el ecosistema audiovisual vasco. • 8. Nueva gestión tecnológica. • 9. Invertir en futuro. • 10. Acción comercial transversal. • 11. Hacer empresa. • 12. Gobernanza pública y creación de alianzas. <p>Cada una de estas prioridades, dispone de diferentes líneas de acción, así como proyectos asociados a las mismas.</p> <p>A lo largo de 2022 se realizó un análisis de seguimiento para analizar su desarrollo, proceso que también tiene interés para, en su caso, actualizarlo</p> <p>COMPLIANCE: A lo largo del ejercicio 2022 se ha mantenido la actividad del Plan de Cumplimiento Normativo (Compliance penal) y se ha adecuado a los requisitos de los fondos europeos.</p> <p>GOBERNANZA Y RSE: El Grupo EITB aplica los principios de Gobernanza y de Responsabilidad Social establecidos en 2009 para el conjunto del sector público vasco por iniciativa de la Oficina de Control Económico del Gobierno Vasco.</p> <p>EITB lleva desde 2007 desarrollando tales políticas en su gestión ordinaria y publicando las Memorias de Responsabilidad Social.</p> <p>A partir del ejercicio 2018 se procede a una transformación del modelo de Memoria para pasar a ser "Informe de estado de información no financiera" conforme a lo que establece la Ley 11/2018 que regula esta materia.</p> <p>En el ejercicio 2022 se ha realizado la memoria correspondiente y publicad en el portal de transparencia en https://www.eitb.eus/es/grupo-eitb/transparencia/.</p> <p>Además de promover la transparencia en la gobernanza en el ámbito de la Responsabilidad Social desarrolla, con carácter voluntario, iniciativas de acercamiento a la sociedad, de promoción de la imagen de Euskadi en el mundo y del apoyo la promover comunicadores euskaldunes, además de políticas medioambientales, políticas sociales con la plantilla y políticas orientadas a la sostenibilidad empresarial incidiendo en clientes y proveedores.</p> <p>AUDITORIA DE SALUD LABORAL: Los resultados de la auditoría externa realizada por AENOR al sistema de</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>segurtasun- eta osasun-sistemari egindako kanpo-auditoretzaren emaitzak oso onak izan dira. EITBren prebentzio-ereduak ISO 45001:2018 arauak ezarritako nazioarteko estandarrak betetzen ditu</p> <p>GARDENTASUNA: EITBk bere gardentasun politika eguneratzeko prozesua hasi du gobernantza kolaboratzaileko eredu berri baten oinarriak finkatzeko. Eredu berri horrek gobernu irekiaren eta onaren ohiko printzipioak batuko ditu herritarrekiko, profesionalengatik eta EITBko Administrazio Batzordearekiko.</p> <p>Halaber, herritarrek eskuragarri dituzte informazioa jasotzeko eskubidea erabiltzeko formularioak eta, behar izanez gero, telebistako, irratiko eta Interneteko erabiltzaileen Defendatzailearentzakoak, Administrazio Kontseiluak kudeatutakoak.</p> <p>Gainera, 2022tik aurrera, EITBk Jendearentzako Arreta Zerbitzu berria du, eta, horri esker, euskal gizartearekiko komunikazioa hobetu da eta ekarpenak denbora laburragoan eta modu koordinatu eta eraginkorrean helarazi zaizkie EITBko lantaldeei.</p> <p>BERDINTASUN-PLANA: 2022an, 2019-2022 aldirako EITBren III. Berdintasun-Planean aurreikusitako Ekintza Plana garatzen jarraitu da. Lau ekitaldietarako Ekintza Plana datu kuantitatiboan eta kualitatiboan azterketan islatutako alderdiak lehenetsiz diseinatu da, bai hautemandakoenak, bai adierazleenak, kudeaketa aurreratuko eredu bat ziurtatzeko, Plan Estrategikoan eta Programa Kontratuan jasotzen den bezala.</p> <p>Nabarmentzekoa da 2022an "EITB 2030 ESTRATEGIA" eta "2022-2025 PROGRAMA KONTRATUA" onartu izana (eta Administrazio Kontseiluak berretsia), EITBren hurrengo urteetarako ildo estrategikoak eta lehenetsiak finkatzen dituzten dokumentuak. EITBk berdintasunaren alde duen berriazko konpromisoa zeharka jasotzen da bi dokumentuetan.</p> <p>Lehenetsun estrategikoen artean, nabarmentzekoa da kirol-informazioan emakumeen presentzia sustatzearen aldeko apustua. Horren ondorioz, emakume kirolariak gero eta presentzia handiagoa dute hedabide guztietako eguneroko albistegietan, pilota emanaldietan, futboleak, saskibaloian, eskubaloian, txirrindularitzan, traineruetan edo herri-kiroletan, besteak beste</p> <p>Kirol informazioaz gain, EITBk fikzioaren aldeko apustua egin zuen "Irabazi Arte!" seriearekin. Berdintasunaren aldeko Gasteizko CIMA TV FesTVaI 2022 saria jaso zuen gazteei zuzendutako euskarazko seriea. Epaimahaiak nabarmendu zuen EITBko gazteen serieak emakumeen ahalduntzea eta emakumeen arteko elkartzuna sustatzen dituela.</p> <p>Fikzio honek garapen transmedia interesgarria zabaltzen du Instagramen, bere web orriaren,</p>		<p>seguridad y salud laboral vigente en todas las sociedades han sido muy satisfactorios. El modelo de prevención de EITB cumple los estándares internacionales marcados por la ISO 45001:2018.</p> <p>TRANSPARENCIA: EITB ha iniciado un proceso de actualización de su política de transparencia con el objetivo de fijar las bases de un nuevo modelo de gobernanza colaborativa, que una los clásicos principios de gobierno abierto y buen gobierno respecto de la ciudadanía, sus profesionales y el Consejo de Administración de EITB.</p> <p>Asimismo, la ciudadanía tiene a su disposición los formularios para el derecho de acceso a la información y, en su caso, gestionadas desde el Consejo de Administración, para de Defensoría de personas usuarias de televisión, radio e Internet.</p> <p>Además, desde este año 2022, EITB cuenta con un nuevo servicio de Atención al Público lo que está posibilitando mejorar la comunicación con la sociedad vasca y hacer llegar sus aportaciones a los equipos de EITB en un menor tiempo y de una forma coordinada y eficaz.</p> <p>PLAN DE IGUALDAD: Durante 2022 se ha continuado desarrollando el Plan de Acción previsto en el III Plan de Igualdad de EITB que cubre el periodo 2019-2022. El Plan de Acción para los cuatro ejercicios está diseñado a partir de la priorización de los aspectos reflejados en el análisis de datos cuantitativos y cualitativos tanto de percibidos como de indicadores con el fin de asegurar un modelo de gestión avanzada tal y como queda recogido tanto en el Plan Estratégico como en el Contrato Programa.</p> <p>A destacar en 2022 la aprobación (y refrendado por el Consejo de Administración) de "EITB 2030 ESTRATEGIA" y el "CONTRATO PROGRAMA 2022-2025", documentos que fijan las líneas estratégicas y las prioridades de EITB para los próximos años. En ambos documentos se recoge de forma transversal el compromiso expreso de EITB por la igualdad.</p> <p>Destacar, dentro de las prioridades estratégicas, la apuesta por potenciar la presencia de las mujeres en la información deportiva. Esto se ha traducido en una cada vez mayor presencia de las deportistas en los informativos diarios de todos los medios, retransmisiones de pelotas, fútbol, baloncesto, basket, balonmano, ciclismo, traineras, o deporte rural, entro otros.</p> <p>Además de la información deportiva, EITB hizo una apuesta por la ficción con "Irabazi Arte!". Serie en euskera dirigida a las y los jóvenes que recibió el Premio CIMA TV FesTVaI de Vitoria-Gasteiz a la Igualdad 2022. El jurado destacó que la serie juvenil de EITB promueve el empoderamiento femenino y la solidaridad entre las mujeres.</p> <p>Esta ficción despliega un interesante desarrollo transmedia para atraer a la audiencia joven a través de</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>podcastaren eta app formatuan eskuragarri dagoen komiki digital interaktiboaren bidez entzule gazteak erakartzeko. Bestalde, epaimahaiak azpimarratu zuen EITBk emakumeen sustapenean egiten duen lana, fikzioan ez ezik, baita beste genero batzuetan ere, hala nola entretenimenduan, dokumentalean eta emakumeen emanaldiak eta kirola bultzatzeko apustu irraioan.</p> <p>Konpromiso horren harira, aurten, EITBk kirolean jarri zuen arreta, eta emakume kirolariek kirol-lorpenak aitortzeko orduan dituzten oztopo eta zailtasunei ikusgarritasun berezia eman zien. Estereotipoak, hizkuntza eta genero-rolak bereziki begi-bistakoak dira kirolean eta haien komunikazioan. EITBk, Berdintasuna da helmuga / La igualdad es la meta lelopean, emakume kirolariei ahotsa eta lekua eman zizkien bere hedabide guztietan. Kanpaina horrek elkarrizketak eta erreportajeak biltzen zituen, eta, amaitzeko, topaldia egin zen emakume kirolariek EITBren Bilboko egoitzan. Ana Ramos kazetariak aurkeztu zuen ekitaldia eta bertan izan ziren Maria Asun Quiñones Athletic Clubeko jokalaria, Olatz Arrizabalaga pilotaria, Andrea Astudillo Arraun Lagunak elkarteko patroia eta Ainhoa Etxabe Gipuzkoako Herri Kirol Federazioko presidentea. Topaldia streaming bidez jarraitu ahal izan zen eitb.eus-en</p> <p>Gainera, aurreko urteetan bezala, mugimendu feministaren aldarrikapen egunetan, martxoaren 8an eta azaroaren 25ean, esaterako, eduki bereziak eskaini ziren EITBko hedabide guztietan (Euskal Telebista, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria, Gaztea eta eitb.eus), eta jardunaldien nondik norakoak gertutik jarraitu ziren zuzeneko informazio, elkarrizketa eta eduki bereziekin.</p> <p>2022an Edukien kapituluan egon da berdintasunaren arloko ardatza. Udari begira, EITBko Berdintasun eta Informazio arloek sexu-erasoei buruzko informazioa emateko gida bat egin zuten, bi ardatzekin: Biktima babestea eta gure bitartekoak gaitzespenaren eta salaketaren bozgorailu izatea.</p> <p>ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA: 2022ko EITBko administrazio kontratazioan inbertsioetarako eskuragarritasunak handiagoak izan dira. Ondorioz, lizitatutako espediente kopurua aurreko urteetakoa baino handiagoa izango da.</p> <p>Zerbitzuen prezioei dagokienez, 2021eko eta 2022ko inflazio altuak kontratazioaren batez besteko prezioen iguera handia eragin du.</p> <p>Bolumen ekonomikoari dagokionez, 2022an 15 milioi euro baino gehiagoko urteko kopurua duten 100 kontratazio espediente baino gehiago kudeatuko dira.</p> <p>BERRITUTAKO AKORDIOAK: EITBk erakunde publiko eta pribatuekin dituen erakunde-izaerako akordioak mantendu eta berritu dira, Gizarte Erantzukizun</p>		<p>Instagram, su página web, el podcast y el cómic digital interactivo disponible en formato app. Por otro lado, el jurado también subrayó la labor que lleva a cabo EITB en la promoción de la mujer, no sólo en ficción, sino también en otros géneros como el entretenimiento, el documental y la decidida apuesta por impulsar las retransmisiones y el deporte femenino.</p> <p>Al hilo de este compromiso, este año, EITB puso el foco en el deporte y dio especial visibilidad a las trabas y dificultades de las mujeres deportistas a la hora de reconocer sus logros deportivos. Los estereotipos, el lenguaje y los roles de género son especialmente obvios en el deporte y su comunicación. EITB dio voz y espacio en todos sus medios a las mujeres deportistas bajo el lema Berdintasuna da helmuga / La igualdad es la meta. Campaña que recogía entrevistas, reportajes y que culminó con encuentro con mujeres deportistas en la sede de EITB en Bilbao. La periodista Ana Ramos presentó el acto y contó con la participación de la jugadora del Athletic Club Maria Asun Quiñones, la pelotari Olatz Arrizabalaga, la patrona de Arraun Lagunak Andrea Astudillo y la presidenta de la Federación guipuzcoana de Herri Kirolak Ainhoa Etxabe. El encuentro se pudo seguir por streaming a través de eitb.eus</p> <p>Además, como años anteriores, en las fechas reivindicativas del movimiento feminista como son el 8 de marzo y el 25 de noviembre- se ofrecieron contenidos especiales en todos los medios de EITB (Euskal Telebista, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria, Gaztea y eitb.eus) y se siguió de cerca el desarrollo de las jornadas con toda la información en directo, entrevistas y contenidos especiales.</p> <p>En 2022 el foco en materia de igualdad ha estado en el capítulo de Contenidos. De cara al periodo estival, las áreas de Igualdad e Informativos de EITB elaboraron una guía para para informar sobre agresiones sexuales, con dos focos: La protección de la víctima y cómo hacer que nuestro medios sean altavoz de la repulsa y de la denuncia.</p> <p>CONTRATACIÓN ADMINISTRATIVA: La Contratación Administrativa de EITB durante el año 2022 ha estado marcada por el incremento de las disponibilidades económicas para inversiones. En consecuencia, el número de expedientes licitados será superior a años anteriores.</p> <p>En lo que se refiere a los precios de los servicios, la alta inflación del año 2021 y 2022 ha provocado un fuerte aumento de los precios medios de la contratación.</p> <p>En relación al volumen económico, indicar que durante el año 2022, se habrán gestionado más de 100 expedientes de contratación por un valor anual superior a 15 millones de euros.</p> <p>ACUERDOS RENOVADOS: Se han mantenido y renovado los acuerdos de carácter institucional que EITB mantiene con instituciones públicas y privadas en</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Korporatiboaren garapenaren esparruan. Zehazki, 2022an, EITBk lankidetzak egin ditu 75 elkarte, enpresa eta erakunde baino gehiagorekin.</p> <p>PROGRAMEN KONTRATAZIOA: Programak ekoiztetxeekiko kontratazio-prozedurari jarraituz kontratatu dira, hau da, sozietate publikoetan jabetza intelektuala xede duten kontratuetan aplikatu beharreko legezko printzipioak betetzen direla bermatuz.</p> <p>Prozedura hori 2021ean birdiseinatu zen, eta 2022an finkatu.</p> <p>Esklerosi Anizkoitza da 2022ko EITB Maratoiaren kausa. EITB Mediako hedabide guztien bitartez EITB Maratoiaren komunikazioari jarrera berezia eskainiko zaio, elkartasuna sustatzeko eta esklerosi anizkoitzaren ikerketari buruz sentsibilizatzeko, abenduaren 15ean egingo den jardunaldi berezi baten bidez. EITBk BIOEFekin zuen erakunde-akordioa berritu du, ikerketarako dohaintzei lotutako konpromisoak kudeatzeko eta EITB Maratoia 2022ren ediziorako, esklerosi anizkoitza duten gaixoen Euskadiko elkarteekin lankidetzak-harremanak estutu ditu.</p> <p>Aipatzekoa da, halaber, 2022ko ekitaldian taldeak bere 40. urteurrena ospatu duela.</p> <p>3. EITB TALDEAREN PLANTILLAREN LANeko EGONKORTASUNA</p> <p>Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak buruzko 20/2021 Legean ezarritako eskakizunak eta epeak betetzeko, eta Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzak 20/2021 Legetik eratorritako prozesuak abian jartzeko orientabideei buruz emandako Ebazpenean jasotako jarraibideak kontuan hartuta, EITB taldeak, ente publikoaren enpresa-batzordeekin batera, eta EITB Mediaren Negozio Unitate bakoitzean, aho batez lortu ditu akordioak kategoriatan bakoitzean egonkortu beharreko gehieneko kopuruari buruz, 277. taldean, legearen arabera.</p> <p>Era berean, sortzen diren lanpostu huts guztiak azaleratzen hasi dira, aldi baterako lanpostu berriak saihesteko, legez mugatuta baitaude.</p> <p>Gainera, 2022rako, ohiko enplegu-deialdi publikoak egingo dira EITB H.E-n, oraindik hutsik dauden kategoriatan lanpostuetan (egonkortzeko bereziak), eta kategorien sailkapen berria adostu da EITBnet-en.</p> <p>Era berean, Administrazio Kontseiluak erakunde publikoaren eta haren sozietateen plantillan langile finkoak sartzeko arauen idazketa berria onartu du, epaimahai ebaluatzaileen osiera aldatuz, EITB taldeko plantillan sartzeko prozesu publikoei berme eta arintasun handiagoa emateko.</p>		<p>el marco del desarrollo de la Responsabilidad Social Corporativa. En concreto, en este 2022, EITB ha llevado a cabo colaboraciones con más de 75 asociaciones, empresas e instituciones.</p> <p>CONTRATACIÓN DE PROGRAMAS: La contratación de programas se ha efectuado de acuerdo al procedimiento de contratación con productoras que es la garantía del cumplimiento de los principios legales que deben aplicarse por las sociedades públicas en los contratos cuyo objeto es la propiedad intelectual.</p> <p>Este procedimiento se rediseñó en el ejercicio 2021, consolidándose en el 2022.</p> <p>La esclerosis Múltiple es la causa de EITB Maratoia de este año 2022. A través de todos los medios de EITB Media se prestará especial disposición a la comunicación de EITB Maratoia para fomentar la solidaridad y sensibilizar sobre la investigación de la esclerosis múltiple con una jornada especial que se celebrará el 15 de diciembre. EITB ha renovado su acuerdo institucional con BIOEF para la gestión de los compromisos vinculados a las donaciones para la investigación y para la edición del EITB Maratoia 2022 ha estrechado sus lazos de colaboración con las Asociaciones de pacientes de Esclerosis Múltiple de Euskadi.</p> <p>Cabe señalar, asimismo, que en el ejercicio 2022 el grupo ha celebrado su 40 aniversario.</p> <p>3. ESTABILIDAD LABORAL DE LA PLANTILLA DEL GRUPO EITB</p> <p>Con el objeto de dar cumplimiento a las exigencias y plazos estipulados en la Ley 20/2021 de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, y atendiendo las directrices de la Resolución de la Secretaría de Estado de Función Pública sobre las orientaciones para la puesta en marcha de los procesos derivados de la Ley 20/2021, el grupo EITB ha alcanzado con los Comités de Empresa del Ente Público, así como en cada una de las Unidades de Negocio de EITB Media, acuerdos por unanimidad sobre el número máximo a estabilizar en cada una de sus categorías, resultando en el grupo 277. por aplicación de la Ley.</p> <p>Asimismo se ha empezado a aflorar todas las vacantes que se producen con el fin de evitar nuevas temporalidades, limitadas ya por Ley.</p> <p>Además, para 2022 se realizarán convocatorias Públicas de Empleo ordinarias en el EITB H.E en las categorías- puestos que están aún vacantes (diferenciadas de estabilización) y se ha acordado la nueva clasificación de las categorías en EITBnet.</p> <p>Asimismo, se ha aprobado por el Consejo de Administración la nueva redacción de las Normas de Ingreso de personal fijo en la plantilla del ente público y sus sociedades, cambiando la composición de los Tribunales Evaluadores para dar una mayor garantía y agilidad a los procesos públicos de incorporación a la</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	<small>MAGNITUDEA MAGNITUD</small>	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>4. INBERTSIOAK</p> <p>Inbertsioak, gehienbat, ustiapen-ekipamendua eta -sistemak berritzera bideratzen ari dira gehienbat zaharkitu egin direlako ordeztearen irizpideari jarraituz. Ohi den moduan, egoitzetan eta bertako instalazio teknikoetan ere inbertsioak egiten ari dira.</p> <p>Inbertsio garrantzitsuenak EITB Media SAU sozietatearen aurrekontu-memorian islatuta daude.</p> <p>5. Talde-mailako egiazko inbertsioetako jarduketak, guztira (milaka eurotan).</p> <p>(Jarduketa garrantzitsuenak EITB MEDIAren memorian azaltzen dira).</p>	<p>7.800</p>	<p>plantilla del grupo EITB.</p> <p>4. INVERSIONES</p> <p>Las inversiones se están centrando principalmente en renovaciones de equipamiento de Explotación, y sistemas básicamente por un criterio de sustitución por obsolescencia. Como es habitual, también se están acometiendo inversiones en las diferentes sedes y sus instalaciones técnicas.</p> <p>Las inversiones más importantes se encuentran reflejadas en la Memoria del presupuesto de EITB Media, SAU.</p> <p>5. Total actuaciones en inversiones reales a nivel de Grupo (miles euros).</p> <p>(Las actuaciones más importantes se desglosan en la memoria de EITB MEDIA).</p>

3. 2023RAKO HELBURU OROKORRAK ETA
HAIEN KUANTIFIKAZIOA

3. OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2023
Y SU CUANTIFICACIÓN

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. ERRENTAGARRITASUN SOZIALAREN ETA KUDEAKETAREN EFIZIENTZIAREN HELBURUEN ARTEKO OREKA</p> <p>2023ko EITB taldearen ustiapen-aurrekontu finkatua orekatuta aurreikusten da.</p> <p>EITB taldearen publizitate-salmentak (milaka eurotan).</p> <p>2023ko aurrekontuarekin, edukien eskaintzak horretarako ezarritako erronkei heldu beharko die:</p> <p>soldata-masa (Gizarte Segurantzarik gabe), taldeak 2023 ekitaldirako metatutako datua (milaka eurotan).</p> <p>EITB taldearen plantilla.</p> <p>EITBk Eusko Jaurlaritzak sektore publikorako ezarritako soldata-politika aplikatuko du. Zuzendaritzaren jarraibideen arabera, soldata-igoera aplikatzeko, akordioak egin behar dira sozietate guztietako ordezkari sozialekin, negoziazio kolektiboko mahaian.</p> <p>2023an, EITBk lanpostu hutsen lanpostuen deialdi publikoen (LDP) prozesuak gauzatu ditu.</p> <p>4. Ekitaldiaren aurrekontu-oreka.</p> <p>Helburu ekonomiko eta finantzario nagusia da diru-sarreraren eta gastuen arteko oreka lortzea, EITB taldearen kontu finkatuan 0 defizit deritzona.</p> <p>EITBk gastua aurreikusitako diru-sarreretara egokituko du eta, oreka finantzarioa bermatzeok, zuzendaritzaren jarraibideen arabera gastu-murrizketa bat egingo du.</p> <p>Halaber, kontrol-sistemak indartuko ditu, diru-sarrerak eta gastuak alditan banatuz, eta itxiera-proiektzioak eginez ekitaldian zehar.</p> <p>2. PROGRAMA KONTRATUAREN ETA PLAN ESTRATEGIKOAREN KONPROMISOEN GARAPENA</p> <p>2023. urteari dagokionez, EITB 2030 Estrategia dokumentuan nabarmendutako 12 lehentasunetan aurrera jarraitzea aurreikusten da, eta erronka berriak abian jartzeari aurre egiten, hala nola PRIMERAN euskal OTTa, Europako eskualdeetako komunikazio-talde publikoen zuzendaritzen CIRCUM 2023 urteko bilera Euskadin egitea, Frantziako Tourraren hasiera</p>	<p>14.074</p> <p>57.741</p> <p>1.090</p> <p>DÉFICIT 0</p>	<p>1. EQUILIBRIO ENTRE EL OBJETIVO DE RENTABILIDAD SOCIAL Y EL DE EFICIENCIA EN LA GESTIÓN</p> <p>El presupuesto de explotación consolidado del Grupo EITB contempla el equilibrio para 2023.</p> <p>Cifra de ventas de publicidad del Grupo EITB (miles euros).</p> <p>Con el presupuesto de 2023 la oferta de contenidos deberá abordar los retos que se estipulen al respecto:</p> <p>Masa salarial (sin SS), dato acumulado del Grupo (miles euros) para el ejercicio 2023.</p> <p>Plantilla del Grupo EITB.</p> <p>EITB va a aplicar la política salarial dispuesta por el Gobierno Vasco para el sector público. De conformidad con las directrices de la Dirección la aplicación del incremento salarial precisa de acuerdos con la representación social de las distintas Sociedades en mesas de negociación colectiva.</p> <p>A lo largo de 2023 EITB va a llevar a cabo los procesos de convocatorias públicas de empleo (CPE) de las diferentes vacantes.</p> <p>4. Equilibrio presupuestario del ejercicio.</p> <p>El objetivo económico-financiero principal es lograr el equilibrio entre ingresos y gastos, expresado como Déficit 0 en las cuentas consolidadas del Grupo EITB.</p> <p>EITB ajustará el gasto a los ingresos previstos y con el fin de asegurar el equilibrio financiero realizará una reducción de gastos conforme a las directrices de la dirección.</p> <p>Asimismo, reforzará los sistemas de control a través de la periodificación de ingresos y gastos y realizando a lo largo del ejercicio diversas proyecciones de cierre.</p> <p>2. DESARROLLO DE LOS COMPROMISOS DEL CONTRATO PROGRAMA Y PLAN ESTRATÉGICO</p> <p>Respecto al año 2023, se prevé seguir avanzado en las 12 prioridades destacadas en el documento EITB 2030 Estrategia y afrontando la puesta en marcha de nuevos retos como la OTT vasca PRIMERAN, la celebración en Euskadi de la reunión anual CIRCUM 2023 de direcciones de los grupos de comunicación públicos regionales europeos, el inicio del Tour de Francia en</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	<small>MAGNITUDEA MAGNITUD</small>	OBJETIVO ACCION INDICADOR
